


Lemoako Kirol Jardunaldiak egingo dira hilaren 11tik 21era bitartean

10. orrialdea

Bruno Soto haltera lemoaztarrak Espainiako Txapelketea irabazi dau

Bruno Soto Fernandezek Cadizen jokaturako 17 urte arteko Espainiako Halterofilia Txapelketea irabazi dau. Arrankadan 110 kilo altxau ebazan, denpora bitan 140, guztira 250 kilo, hiru urrezko domina lortuz. Mundukoa be jokatu eban lehenago eta zazpigarren egin eban han. **11. orrialdea**



Magiaz beteko dabe 5 eta 6ko astegoiena Zeanurin

12. orrialdea

Juan de Arratiaren gaineko liburua berrargitaratu dabe

Datorren urtean beteko dira 500 urte Elkanok eta beste 17 itsasgizonek munduari lehenengo bira emon eutsiela.

Bizkaiko Merkataritza Itsas-ketako Kapitainen Elkartea (BMIKKE) hasi da mendeurrena ospatuten Juan de Arratia omenduz. Juan de Arratia Elkano-gaz batera heldu zan hamazazpi hareetako bat izan zan, Victoria naoko itsasmutila, hain zuzen be. 1963an, Gines Gines Graok haren ikuspuntutik egindako kontakizuna idatzi eta argitaratu eban. Oin kapitainen alkarteak berrargitaratu dau liburua. Oingo edizinoan, 500 ale euskeraz eta beste 500 gaztelaniaz kaleratu ditue. **8. orrialdea**



Itsasketako Kapitainen Elkartea hasi da Juan de Arratia omentzen.

Lemoatxako kurutze-bideko kurutzeak bota dauz Lemoako Udalak



Monumentu moltso frankistearen orde elementu demokratiko bat eregiko dau. Monumentu moltso frankistea, kurutze-bideak, gainaldeko kurutze monumentalak, Santo Cristo de las Batallas ermiteak, kaperak, horren azpiko hileta-kriptak eta kalbario batek osatu eben. **5. orrialdea**

LEMOA

Merkataritza bultzatzeko deskontu bonuak atera ditue

Lemoako Udalak eta Lemoa Ureztatzen merkatarien alkarteak deskontu bonu kanpaina ipini dabe martxan. Herriko 24 komertziok hartzean dabe parte. Bonuak ez dira erosi behar, gitxienez 12 euroko erosketea egin ezker, 5 euroko deskontua egiteko eskatutea nahikoa da. **7. orrialdea**

ARRATIA

Basoa defendatzaileen etxeko lanetarako crowdfunding-a martxan

Urri bigarrenaren amaieran zabaldu zan eta zemendiaren amaierara arte egongo da zabalik kofinantziaketa kanpaina. Diru bilketeagaz, gitxienez 22.500 euro behar ditue eta 32.750 euro jasotea hobeezintzat jotzen dabe. **12. orrialdea**

LEMOA

Korrontzik eta Xabier Amurizak kontzertua eskainiko dabe

Zemendiaren 5ean izango da kontzertua, 20:00etan, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.

Korrontzik igaz kaleratu eban bere hamargarren diskoa, *Koplarik* izenekoa eta disko horretako kantuak dakar kontzertura. Korrontzik, Xabier Amuriza bertsolari eta ikertzaileagaz egindako alkarlanaren emaitza da *Koplarik*. Lan honek, koplagintzeari musika herrikoian daukan garrantzia emoten deutso eta hainbat kopla zahar eta barri entzuteko aukerea egongo da Lemoan.

Sarrerak udal webgunean dagoz salgai. **13. orrialdea**

GARENA

Tradizio berriak

 Iturriotz auzoa, 11 [Dima] • 946 317 215 • garena@garena.restaurant
[f](https://www.facebook.com/garena.restaurant) [i](https://www.instagram.com/garena.restaurant) [garena.restaurant](https://www.garena.restaurant)

30 urte beharrean

- LAN PUBLIKOAK
- INDUSKETAK
- GARRAIOAK
- UR SAREAK
- SANEAMENTS SAREAK
- BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
- PABILOIAK
- URBANIZAZIOAK

94 631 72 57 Igorre (Bizkaia)

eraketak@construccionesekin.com

Literatura txokoa

IÑURRATEGI ANAIAK. MENDIARI BIHOTZ EMANAK

Txikiak ginala jaso genduan gu-rasoengandik mendizaletasuna, astegoienero mendira eroaten ginduzanean sortu jakun mendira joateko eta mendiari buruz gehiago jakiteko gogo. Gogo horrek eta gurasoengandik be jasotako komikia irakurteko zaletasunak bat egin eben liburu hau lehenengoz ikusi nebanean, eta ez zan denpora asko pasau etxean euki arte. Gustura irakurriko nebala uste izan neban orduan, eta holan izan da, bai.

Liburuak Felixek eta Albertok mendian egindako ibilbidea kontetan deusku, sano gazte zirala Alpeetara lehenengoz joan zirane-tik 2017an Gasherbrum I eta Ilra egindako espedizinora arte. Urte horretan Albertok Juan Vallejo eta

Mikel Zabalzagaz batera egindako espedizino hori hartzean dau atxakia moduan narrazinoa josteko. Bidai horretan Shazia izeneko neska bat ezetuten dau, neska honek eskatuta, Albertok bere eta bere anaiaren bizitzen errepasoa egiten dau Felixen izena daroan fundazioak lagunduteko eskoletako umeek Iñurrategitarrak ezetuteko asmoagaz.

Euren ibilbideagaz batera Baltistan Fundazioa, sherpek egindako lanaren esker ona, mendian gelditutako anaia eta lagunene oroimena eta beste hainbat kontu ateraten dauz Albertoren izenean Ramon Olasagastik, dana sano era poetiko baten idatzita. Eder-to harilkatutako narrazinoa era ederrean idatzitakoa dala esango

neuke, barruko emozinoak azaleratuteko moduan.

Olasagasti mendi gaietan aritutako kazetaria izanda erraztasuna igarten jako gai honen inguruan idazterakoan. Llaguno marrazkilariak be mendi aldizkarietan argitaratu izan dauz sarritan bere binetak. Halanda be, personaieen marrazkiak estatikoegiak dira nire gusturako.


Komikiaz aparte, amaierako orrietan gehigarri bi be topau geinkez: batean Iñurrategitarrak egindako ibilbide osoaren aita-mena egiten da eta bestean Felix hil ostean sortutako Baltistan Fundazioari buruzko informazio gehiago agertzen da. Shaziak esaten dauan moduan "Behin apurtu zan soka ha, herri txiki bi-

Ramon Olasagasti-Cesar Llaguno

Iñurategi anaia. Mendiari bihotz emanak

Sua edizioak, 2020

104 orrialde



ren arteko lokarri sendoa bihurtu da" fundazio horren bitartez.

Mendirako zaletasuna badaukazu, guztiz gomendagarria da liburu hau. Eta ez badaukazu be, seguru gustura irakurriko dozula.

Hektor Rodriguez

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Zemendiaren 1etik 7ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Zemendiaren 8tik 14ra

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Zemendiaren 15etik 21era

Goikoetxea. Dima. Ugarana 33
Tel.: 94 673 70 54 eta 619 524 057

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiari egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Ana Gometza. Francisco Kortabaria 2. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /
mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notariotza 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@errota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro. Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengoa 05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan. Zapatuetan: Lehenengoa 05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era orduro.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

3911 linea. Bilbo-Galdakao Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 22:00etara orduro. Zapatu eta domeketan Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik 21:10era orduro. Zapatuetan: 06:30etik 21:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 21:30era orduro.

3912 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik 21:00etara orduro. Zapatuetan: 06:20tik 21:20era orduro.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era orduro.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro. Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05, 14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan: 13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrea. Lanegun eta zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan: 08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriagatik Zeberiora. Jaiegunetan: 10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten dau eta Otxandioakoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten dau eta Otxandioakoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten dau Gasteizetik eta Otxandioakoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioakoak 10:30ean urteten dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau Gasteizetik.

Babesleak:



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.
Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea. Telefonoa: 94 673 90 13.
Helbide elektronikoa: begitu@begitu.eus
Webgunea: www.begitu.eus
Zuzendaria eta publizitate arduraduna: Iñigo Iruarizaga.
Telefonoa: 94 673 90 13 eta 649 979 115. E-posta: inigoirua@begitu.eus
Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 673 90 13 eta 649 979 112. E-posta: beazpiri@begitu.eus
Webgunearen arduraduna: Asier Abrisketa. Telefonoa: 94 673 90 13 eta 626 647 923. E-posta: asierabrisketa@begitu.eus
Maketazinoa: Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarizaga.
Banaketee: Iraia Herrero (Arantzazu, Artea eta Ubide), Ibai Milikua (Areatza), Unai Agorreta eta Xabier Beitia (Bedia eta Lemoa), Amaia Uriarte (Dima), Iker Perez eta Eguzkiñe Zuluaga (Igorre), Iratxe Arribas (Zeanuri), eta Andoni Brizuela (Zeberio).
Tiradea: 7.300 ale. Inprimategia: Iparragirre Editoriala.
Facebook: [Begitu Aldizkaria](https://www.facebook.com/BegituAldizkaria). Twitter: [@BegituEus](https://twitter.com/BegituEus). Instagram: [@begitu.eus](https://www.instagram.com/begitu.eus)
Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

ZEURE BERBEA

Zeure Berbea

Espazio hau irakurleentzako espazioa da. Irakurleak gura dauana adierazoteko lekua. Bialdu zuen kexak, eskertronak, hausnarketak, burutazinoak edota ideak karta baten bidez eta erabili BEGITU beste irakurleei zuen ikuspuntua helarazoteko. Argitaratuteko derrigorrezkoa da izen osoa, NA-ren zenbakia eta herria emotea.

Zeure Berbea hamar herritan entzungo da. Zeuk daukazu berbea. Entzuteko prest gagoz. Hauxe helbidea:

Zertu Kultur Elkartea
BEGITU aldizkaria
Herriko Plaza 24
48142 Artea
Edo, helbide elektronikoa honetara bialdu zure gutuna:
begitu@begitu.eus

BEGITU ALDIZKARIA

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUk eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Leire ta Aner kale-zurruta egiten dabiz, kalean, beste lagun batzuek az. Maitasun kontuak tartean...

Leire: Hemen bai ondo!
Aner: Bai, txarto ez...
Maite: Ez dok oso konbenzidute esaten; egie, alkoholik edaten ez dokenez...
Aner: Edaten joat, baia ez jekoanar gogorik.
Leire: Hi, hartik tragu bet... Zein da kontue, ez dokela edaten edo... (emegazoteko kiñue) edaten ez dakikela?
Aner: Aikomen bestea! Jagoizen lagunek gero!
Maite: Ia, ia, ez zaitezie hasarratu... Aa, Aner, Anek hitzako goraintziek emon jostezak.
Aner: Ah, bai? Artezean niri emon barik... bai, ez dona asartuko nigana etorten!
Maite: Ba ointsu higez berba ein gure joala emoten joan...
Aner: (Jakin-gurean) Non ikusi hoan?
Maite: Alde zaharrean, horegeiti ez nintzonan liburu-dendara tertzioz heldu.
Leire: Hori dona eskusea...! Atoan harrapetan donazat guzurrek!
Maite: Ez dona guzurre. Aner, neska horrek atzera gure jok higez hasi...
Aner: Nigez ezin dona egon, eta ni barik txarrago jabiñe. Hori de txibize!
Leire: Bueno, hi, bakea beha juk; nire lagune dok, eta ez jekok fondo txarrik.
Aner: Baia burubako hutse dok! Ez jakiñe zer gure dauen bez! Ta inguruko lagunekaz azpikeriten jabiñe. Kakalustre hori...
Leire: Nehikoa, hi! Ea hemendi eurrera ez doadan kontetan bapez!
Aner: Ai... (Adarra joteko txandea aprobetxauko dau). Maite, heu be nire lez habil Leiregaz, beti tentu handiz, seguruti!
Leire: Bañoak lotara, arean antojue hartu doat ta!
Maite: Esatea be... batzuten bahaz apur bet astopotroa, Aner! Leire, etxon! (Eta badoa bere atzetik).

ERETXIA

Ikusmen urria, ohikoa baina ezezaguna



ARANTZA ULIARTE RANEA
Retina Bizkaia Begisare Alkarteko presidentea

Pasau dan urri bigarrenaren 14an Ikusmenaren Nazi-noarteko Eguna ospatu zan *love your eyes* (maitatu zeure begiak) lemapean.

2000. urtetik, urri bigarreneko bigarren egunetan, OMEk (Munduko Osasun Erakundea) eta IABPk (Itsutasunari Aurrea Hartzeko Nazioarteko Agentzia) ikusmena jagoteko sensibilizazio kanpainak sustatzen ditue. Helburua da personak konzientzietea ikusmen gaixotasun mota desbardinez, horreen ondorioez eta balizko tratamenduez. Euskadin, 40.000 persona inguruk daukie ikusmen urritasunen bat; horreetatik %6 bakarrik dira itsuak, eta gehienek ikusmen urria daukie.

Persona batek ikusmen urria daukala jotzen da %30 baino gitiago ikusten dauanean. Sintomak honeek dira: ikusmen lausoa daukanean edo erdikoa ikusten ez dauanean, hau da, ikusmen periferikoa edo ikuseremua-zen zati bat galtzean dauanean. Makula-endekapena, glaukoma, miopia magna, erretinopatia diabetikoa, aniridia, erretinosi pigmentarioa eta erretinaren beste distrofia batzuk dira hori eragiten daben eta sendabiderik ez daukien gaixotasunetako batzuk. Espainian miloe bat personak baino gehiagok daukie horreetako gaixotasunen bat.

Ikusmen urria ez da hobetzen zuzenketa optiko egokia erabiliz, ezta tratamendu farmakologikoa edo kirurgia erabiliz be. Ikusmen urriak zaildu edo ezgaitu egiten dau eguneroko bizitzako lanak egiteko. Ha-ta guzti be, herritar gehienek ez dakie ikusmen urria daukien personak dagozala, oharkabean pasetan dira eta. Ikusmen urriaren barri ez jakiteak ulertzerik eza dakar, batez be, sarritan gertatzen dan legez, ikusmen urriko personak begiak eta begiradea itxuraz osasun-

tsuak baditu. Eguneroko zeregin batzuk modu autonomoan egin daikeguzan arren, laguntza edo laguntza elementuak behar doguz beste batzuk egiteko.

IKUSMEN URRIA DUT bereizgarria begi berde formako sinboloa da, eta ezgaitasun hori daukien personak halakotzat hartzean lagunduten dau. Holan, interpretazio okerrik ez da egiten ikusmen urriagaitik modu bitxian jokatzin dabenean. Ikusmen urriagaitiko jokaera batzuk izan daitekez adibidez, persona ezagun bat ez agurtzea, ez urruntzea, oso astiro ibiltea, estropezu egitea, banku bategaz, farola bategaz edo ume bategaz talka egitea, sartzeko edo urteteko aterik ez topatzea, edo gainontzekoentzat oso nabarmena dan zerbaitez galdetzea.

Ikusmen urria ikusi arazoten dauan bereizgarria, kaltetuak ezetuteko moduan ipiniz, bera bakarrik erabil daiteke edo makila zuria edo txakur gidariagaz batera. Holan, adierazoten dau erabilten dauanak ikusmen hondarra daukala, hau da, ez dala guztiz itsua.

IKUSMEN URRIA DUT bereizgarria sortzeako idea Retinosis Gipuzkoa Begisareraren barruan sortu zan 2013an. Harrezkerotik, gero eta gehiago erabilten da, eta Espainia osoan ezaguna

da. Ikusmen urritasuna daukien personen Alkartek eta oftalmologiako, optikako edo ikusmen errehabilitazinoako profesionalak funtsezkoak izan dira horreek zabaltzeko.

Bereizgarriak hainbat formatu ditu, baina erabiliene txapa simple bat da, IKUSMEN URRIA DUT esaldia daukana, eta hainbat hizkuntzatan dago eskuragarri. www.tengobajavision.com webgunean edo 646 787 112 telefonora deituta eskuratu daiteke.

Retinosis Gipuzkoa, Retina Bizkaia eta Retina Araba Alkartek Alkartu egin dira hainbat euskarritan kanpaina bat egiteko. Kanpaina horren helburua da oindino erabilten ez dabenei IKUSMEN URRIA DUT ikurra erabiltearen alde onak erakustea. Kanpaina gizarte osoari be zuzentzen jako, ikusmen urria ikusi arazoteko; horrek, ikusmen urritasuna daukienenganako ulermen soziala hobetuteko balio dau eta. Oin, beste pausu bat egin gura dogu, bereizgarria erabili daikien personei autonomia hobetzen lagundu deikielako. Daroagunok hobeto ulertzen gaitue, lehen jentea gugaz haserretu edo txarto-ulertuak sortzean ziran egoeretan. Zenbat eta persona gehiagok eroan, orduan eta gehiago ezetuko da ikurra, eta, beraz, jente gehiagok ulertuko gaitu.

Erabilteko dei hori gizon baten eta andra baten irudiaren bidez egiten da. Irudi horreek txapa bereizgarria daukie paparrean, esaldi honegaz: "Ikusmen urria baduzu, txapa honek laguntzen dizu".

Urri bigarrenaren bigarren astean, 1.000 publizidade euskarri baino gehiagotan erakutsi da kanpaina Euskadi osoan: besteak beste, Euskotrenen markesinetan, pantaila digitaletan, tranbiaren pantailetan edo txartelak saltzeako makinetan ikusi ahal izan dira. San Mamesek be emon gura izan deutso argia egoera horrerik Ikusmenaren Nazioarteko Egunean, eta Katedrala berdez ikusi zan, ikusten ez dabena ikusgarri egin gura dituan begi biribilaren berdeagaz.

NETFLIX

EUSKARAZ

WWW.PANTAILAEUSKARAZ.EUS

EUSKARAZKO
IKUS-ENTZUNEZKOEN
ALDEKO EKIMENA

Sinatu eskaerea helbide honetan:
<https://www.change.org/p/basque-governments-netflix-netflix-euskaraz-in-basque-en-euskera>

LUMATUTEN



ARANTZA
ETXEBARRIA

Arineketan
egindako
inprobisazinoa

Gaur egun guztion ahoan dagoan espresinoa da kudeaketa aurreratua. Kudeaketa modu horrek emaitza onenak ei dakarz interes-talde guztientzat. Horretarako, 6 elementu hartzean dira kontuan: estrategia, bezeroak, personak, gizartea, barrikuntzea eta emaitzak. Esan daigun inguratzen gaituan gizartea, hur-hurrekoa, aurreratua dala. Horretarako, ezarrita dauka estrategia bat, gizartean bertan sortzean diran produktu eta zerbitzuak diseinetan diranetik opatu eta denporan irauten daben arteko ardurea dauka, personak behar dan moduan jagoten dauz, gizartea bera osotzen daben talde eta personen eboluzinoa kontuan hartzean dau eta barrikuntzarako gaitasuna baliatzen dau. Eta aurreko guztia kontuan hartuta, emaitza onak lortzean dauz. Guztiok bat etorriko gara hori

ez dala holan. Bizi garan gizarteak ez dauka estrategiarik; argiagoa izango leiteke noraezean dabilala esatea. Bururik eta hankarik euki barik sortu eta banatzen dauz produktuak eta zerbitzuak, desoreka handiak eraginda hainbat talde eta multzoren artean. Gaur egungo gizarteari ez jakoz personak ardura; personok aurretik ezarritako helburu amarrutsuak lortzeako baliabideak baino ez gara. Gizartea osotzen daben talde eta personen eboluzinoa bardin jako, batzuek euren helburuak lortzean dabezana bitartean. Eta barrikuntzea derrigor hartu beharreko tren da, baina ez modu planifikau eta hausnartuan, ezpada kontrol barik eta gauzak datozen moduan hartuta. Emaitzak lortzean dauz, hori bai, baina beti ez dira aproposak eta bidezkoak izaten. Halanda ze, geure gizartean ez dago ez estrategiarik, ez bertan sortutako produktu eta zerbitzuen gaineko ardurarik, ez personak jagoterik, ez talde eta personen eboluzinoaren gaineko kontzientziarik, ez barrikuntzearen inguruko hausnarketarik. Eta emaitzak be dudana ipinteko modukoak dira askotan. Esan dodana esan eta gero, eta geure gizarteari erreparau ezkerro, espresinoa bera be zalantzan ipiniko neuke. Kudeaketarik egon badago edo dana arrapaladan egiten dogu? Zelan-halango kudeaketeta dagoala onartuta be, aurreratua dala esango geunke? Geure gizartea, hur-hurrekoa, moduren baten izentau beharko baneu, arineketan egindako inprobisazinoa dala esango neuke.

ZERTZEAN



MAITE ARRIZABALAGA

Aitonak Ane besarkatu du eta azaldu dio heriotza denok garela guztiona dela, izaki bizidun ororena ezezaguna, iraunkorra atzerantz begiratzan ez duen horietakoa heriotza hostoen erortzean dago loreen ximeltzean ahaztean gure jarduna mundu honetan amaitzean.

Begiradek talka egin dute Ane ez dago ziur aitonak aurrera darrai esan dio ene txikiari hasten den guztiak amaitu beharra daukala hori da bizitzaren legea bizitza miraria da baina ez dauka izaterik heriotzik gabe heriotza ere bizitza baita bilakaera helduko da noizbait, bere momentuan bitartean denbora, mina, heriotza maitasunetik begiratu bizitzatik.

* Zertzean atalean argitaratzen doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera ereduan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITU argitaratu gura izan ezkerro, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

Lorearen hazia (II)

* Ume guztientzat, lagunduko deusuelakoan.

Dolua, berba ederra beharrezkoa maite dugunaren hutsean ez izatean desagertu dela sentitzen dugunean bihotza tristeziaz blai horrela da malkoen isurian mina ez da erraza baina hutsarekin bizi gaitzezke hori da sekretua bizitzari, heriotzari ematen diona zentzua irribarreari eusten dion zantzua.

Hildakoak ez dira joaten ez guztiz oroitzapenetan diraute etengabe gure iritzietan daude, balioetan sentimenduetan bizi dira ametsetan, negar anpuluetan irribarrean, minean eta zu ene txikitxo amona zen lora eder haren hazia zara amona zuga bizi da eta emeki, leun eman dio muxu aitonak begi-ondoan jakinduriaraz beteriko hitz horien artean.

BEGI TXINDORRA

Zirrie ala sarie?" galdezka ibili ziran umeak Artean eta Arratiako beste herri batzuetan, argizatutako kalabaza eta trapu zaharraz egindako moztorroen bertoko tradizioa berreskuratzen. Gure Gau Baltza edo Arimen Gauaren bersino anglosaxoniarrak (Halloween) indar handia hartu dauan honetan, globalizazioak, ezustean, ia galdutako bertoko tradizioa hauspotu dau. "Halloweenen eta honek beragaz dakarren konsumo ereduaren gaineko kezka batetik sortu jakun zozar antolatutako gogoia. Igaz emondako berbal-dian, Araolazak neguko jaien hasikerea ospakizun honegaz hasten zala komentau euskun. Kasu honetan, herriko umeak komunitatean ezetuteko aukerea emoten dau eske errondeak, etxez etxe joaten dira eskean eta" dinoe Kokomarroak taldeak. Kezkatik ekintzara pasau ziran. Umeak poz-pozik ibili ziran etxez etxe, zirrie ala sarie gaztainak, intxaurreak eta artoa batzean. Plazan, gaztainak erre eta artoagaz krispetak egin ebezan gero jai giro ederrean. Neguko jaiak hasikerea emonda, ziri gitxi eta sari asko izan dagiala ba, aurtengo neguak!





Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inaustaketa

Gorosti
LORAZAINTZA

Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscsl.com



begitu
eus



TOKA
Laguntza Agiri III
Laguntza Agiri III



agoa
hagin klinikoa

Ortodontzia
Implanteak
Estetika

Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia

Bidebarri 1. behea
48140 Igome - Bizkaia
T. 94 631 50 39
Hilategi Zentzua: 900
R.P.S. 20/06

LEMOA

Lemoatxako kurutze-bidea kendu dau Udalak

Erredakzinoa

Ernai taldekoek botatako Lemoatxako kurutzea eta Udalak kendutako kurutze-bideko kurutzeek osotutako monumentu frankistearen ordeztu, elementu demokratiko bat eregiko dauala emon dau jakitera Lemoako Udalak.

Eraitsitako kurutzeak kendu izanaren asmoa ez dala "sinbolo kristauak kentzea, monumentu frankista bateri esangura barria emotea baino" azaldu dabe. Sinbolo horreen kentze prozesua eta esangurea Alba Peña-Muñoz arkeologoaren azterlan historiko-arkeologikoan oinarritzen da.

Monumentu moltso frankistea Peña-Muñozen azterlanaren arabera, Arratia bailararen gainaldean

egoan kurutze monumentala Kurutzadan hildakoen omenez eregi zan. Oinean plaka bat egoan, eta hau irakurri eitekean bertan: "A los que en defensa de una civilización dieron su vida por Dios y por España en esta Peña. 5 junio 1937" (Zibilizazio baten defentsan, hatx honetan bizitza Jainkoaren eta Espainiaren alde emon ebenen omenez. 1937ko bagilearen 5a). Ermita gudarik hoge bat urtera eregi zan: 1956an onartu eta 1958an inaugurau zan. Memoria-gune konpleju bat eregi zan Lemoatxan: sartzeako errepide bat, kurutze-bide bat, gailurrean egoan kurutze monumentala, Santo Cristo de las Batallas santuaren ermita, kapera eta horren azpiko hileta-kriptea, eta kalbario bat mendiaren gunerik

altuenean. Aurrekontua 276.000 pezetakoa izan zan. Bizkaiko Gobernu Zibilak 70.000 pezeta ipini zituan, eta Bizkaiko Foru Aldundiak beste 50.000 pezeta, baina ez dira ezetuten gainerako diru emoileak ezta bildutako zenbatekoa be.

Kurutze-bidea monumentu moltsoaren zati modura eregi zan 1956-1958 tartean, eta Infanterriko Dukesak ordaindu eban. Oindino gordeta dago Udalak hareri bidali eutsan gutuna eskerrak emoteko. Isabel Falguera Moreno Infanterriko Dukesak eregi eta finantzau eban, haren semearen omenez, Francisco de Borja de Arteaga y Falguera, Lemoatxeko batailan hil zana 1937ko bagila-



ARANTZAZU

Osasun Zentroa barriro zabalduteko eskatuten jarraituko dau Udalak

Erredakzinoa

Udalak Osasun Zentroa zabaldu- teko eskaerea egin eutsan Osakidetza OSI Barrualde-Galdakaori, eta ezezko erantzuna jaso dau. Barriro be eskaerea egiteko asmoa agertu deutso BEGITUri Asier Aburto Arantzazuko alkateak.

Pandemiaren atxakian zarratu eben arte, Arantzazuko biztanleek osasun konsulta izaten eben as-

tean bitan, hiru ordu. COVID-19a dala-eta, aurrez aurreko Lehen Arreta kendu eban Osakidetzak, eta arreta telefonikoa izatera pasau zan. Hainbat konsulta be zarratu ebazan; tartean, Arantzazuko, osasun arreta Igorren zentralizauz. Oin, Osasun Sailburuaren 2021eko urriaren 6ko Aginduak osasun larrialdiari amaiera emon eutsan arren, Osakidetzak ez ditu zabaldu osasun larrialdian zarratu-

tako konsultak, eta ez da berreskuratu lehengo aurrez aurreko arreta %100ean.

Arantzazuko Osasun Zentroa edadeko jenteak erabilten ebala jakitun, Udalak eskaerea egin eutsan Osakidetza herriko konsulta barriro zabalduteko. Osakidetza erantzuna izan zan, konsultak Igorren zentralizaut jarraituko dabela Arantzazuko kilometro batera daukalako anbulatorioa.

DIMA

Pobreziaren kontrako jaialdia antolatu dau Diman Caritas Arratiak

Zemendiaren 13an izango da, 18:30ean hasita, Dimako frontoian.

Erredakzinoa

Bertan, Ibon Iza eta Xabier Etxebarria bertsolariek, Bihotz Gorospe kantariak, Dimako koruak, EALEko jantzariek eta beste artista askok hartuko dabe parte, bertsoak, musikea, jantzea eta antzerki musikala eskaintzeko. Amaitzeko, txokolate beroa bananduko da bertaratutakoen artean.

Antzerkiaren aurretik zozket egingo da: astegoieneko lau menu Baltzola jatetxean, gosari bi Axlora tabernan, menu bi Hermo jatetxean, erosketa bonua Eroskin, otzara bete produktu okindegian, Garena jatetxeko txakolin eta orio kutxa bat eta Antzasti museorako sei sarrera zozketatuko dira beste gauza batzuen artean.

Pobreziaren kontra Caritas Arratiak Pobreen Eguneke V. Jaialdia antolatu dau aurten, herri-tarrakaz alkarlanean "gizarte zuzenago baten alde". Egun horretarako sarrerak salgai dagoz euro bitan. O filako txartelak be erosi daitezke.

Caritas Arratiak ekintza hau antolatuten dauan bosgarren aldia da. Lehenengo hiru urteetan Igorren egin zan, igaz Zeanurin eta aurten Diman. Igaz 9.000 euro batu ziran, Areatzan eta Bedian dagozan atzerriko gazte ez lagunduen egoitzak lagunduteko. Aurten batzean dan dirua, Bilboko Errekaldeko Elurra programeari lagunduteko izango da. Ekimen honek guraso baka-



IGORRE

Bizi Igorren 2030

Herri bizigarri, parte-hartzaile eta jasangarriago baterako lanean.

Bizi Igorren 2030 lantaldea

Badira 5 urte Igorreko jubiladuek, Udalaren laguntzeaz, Bizi proiektua martxan ipini ebela, hainbat herri eta herrialdetan oihartzuna izan dauan ekimena. Edadeko personagazko herri adeitsuago bat imajinetan ebelako animau ziran partaidetza prozesua martxan ipintera. Hausnarketa partekatu eta behaketa ibiltariak Ekintza Plana garatzea ekarri eben 2019ko abenduan. Hilabete batzuk beranduago dana gelditu arazo eben, pandemia etorri zan gurera be, eta honek gure planak be izoztu ebazan.

Ha-ta guzti be, hilabete gitxiren buruan Bizi Batzordea taldeak argi izan eban, proiektuagaz aurrera egin behar zala eta bilerak online egitera ausartu ziran. Mobikorrean APP-a instalau, eta ekienak ez ekienari etxe portalean erakutsi eutsan erabilera. Bideodeiak alkarren barri izan eta ahal zan neurrian proiektuan aurrerapausuak egiteko baliatu ziran. Badira 3 urte, proiektu honegaz beste adin tarte batzuk be bat egiten dabena, Institutuko gazteakaz euskera indartzeko Mintzatxokolate saioak, inklusioa, ekonomia zirkularra lango gaiak lantzeako Adinarteko Zineforumak, eskoleagaz alkarlanean eregitako inbernaderoa...

Proiektuak adinarteko dimensioa hartu behar ebala sinistuta, Udala, Igorreko eskolako eta Arratia Institutuko guraso alkatereakaz berba egin eta 2021ean Bizi Igorre 2030 proiektua abian ipini da, hiru helburu nagusi oinarrian dituna: Bizi osorako herri seguru, garbi eta irisgarria sustatzea. Guztiontzako herri hezitzailea, inklusioa, adeitsua, solidarioa eta parte-hartzailea bultzatzea. Herri osasuntsua sustatzea, zaintzan, prebenzioan eta

jasangarritasun printzipioa txertatuz herritarren behar kontuan hartuko dituna.

Hausnarketa ekintza prozesua da, Igorreko etorkizuna era kolektiboan imajinau gura dauana: bizigarriagoa, parte-hartzaileagoa eta jasangarriagoa. Eta horretarako hainbat ekintza ipini dira martxan, adinartekoak eta interesa daukan Igorreko herritar guztiek parte hartu daikienak.

Gure ongizateaz berbetan hausnarketa saioa: zemendiaren 11n 17:00etan (55 urtetik gorako personei zuzenduta). *Bizitzaren digitalizazioa eta arrakala digitala: zelan eragiten deusku gure egunerokotasunean?* zemendiaren 11n 17:00etan Kultur Etxean (interesa daukien herritar guztiei zuzenduta).

Herritarren auzolana, eskolako hesia eta Eskola Bideak marketako: zemendiaren 27an 10:00etan Igorreko Eskolan (interesa daukien herritar guztiei zuzenduta).

Ekintza honeezaz gain, hurrengo hilabeteetan, neguko jai eta ohituren inguruko hausnarketea eta herriko bizigarritasun mailaz hausnartzeko adinarteko saio ibiltaria be egingo da.

AREATZA

Argiteria aldatuz, argi konsumoan %77 aurreztea espero dau Udalak

Argiteria LED-era aldatzeko hirugarren faseari ekingo deutso Areatzak, aurreko legeintzaldian hasitako prozesuari jarraipena emonez.

Erredakzinoa

Aurten argiteria LED sistemara aldatuko da Bolibar eta Iturrimorroko aparkalekuetan, Karpoko paseoan, Areatzako Hotel inguruan, Iturrimaurren, Javier Urian, Ospitalosten eta Askatasun kalean. Horretaz aparte, Kristo kalean beste argi puntu bat ipiniko da eta Gudarien enparantzako proiektoreetan be LED sistemea ezarriko da. Guztira 97 argi puntu aldatuko dira eta holan 37.214 KW konsumidutetik 8.408 KW konsumidutera pasetea aurreikusten dau Udalak. Esleipen fasean dago eta urte amaieran edo "apurtxo bat beranduago, materialakaz arazoak dagozalako" egongo dira ipinita argi barriak.

Proiektua gauzatzeko 76.917 euro behar dirala aurreikusi dau Udalak eta bideratzeko dirulaguntza bi lortu ditu; Bizkaiko Foru Aldundiak esleitutako 40.000 euro eta Eusko Jaurlaritzak Erein programearen bidez esleitutako 36.000 euro. Atzenengo honen zati bat, dana dala, igaz egindakoa ordaintzeko izango da.

2016an egin zan auditoria energetikoa eta han ikusi zan ze argi aldatu behar ziran. "Amortizazioen inguruan egin doguz inbersino guztiak; hau da, lehenengo egin doguzan inbersinoak ziran kilowatio gehien gastetan ebezan argi puntuak aldatu eta LED sistemara pasau eta amortizazioak kalkulauz egin doguz inbersino guztiak" azaldu deutso BEGITURI Asier Garcia Areatzako alkateak.

Basoak egoera naturalera bueltetan

Udalak baso lurak be erosi ditu bertoko espezieak landatzeko; sei

baso partzelak osotutako moltsu bat, 11.200 metro koadro inguru, hain zuzen be. Partzela honeek, Pagomakurreko bidean, Elorribi bide parean dagoz eta herriko basoagaz egiten dabe muga.

Udal aldizkarian azaldutakoaren arabera, prozesu luzean izango dan arren, herriko basoak euren egoera naturalera bueltetako bideak hasita dagoz. Areatzako Udalak hainbat baso lurren jaubea da eta gehienak Gorbeia Parke Naturalaren barruan dagoz, baina landatutako espezie gehienak exotikoak dira. Udalak horri buelte emon gura deutso lurak erosi eta bertoko espezieak landatuz.



UBIDE

Udagoieneko baserriko produktuak erosteko aukerea egongo da Ubiden hilaren 6an

Erredakzinoa

Zemendiaren 6an izango da azokea, 10:00etatik 14:00etara, eta bertan, inguruko baserriko udagoieneko produktuak egongo dira salgai. Udagoiena, urte sasoi oparoa da baserrian eta ekoizleek produktu ugari eta kalidadezkoak izaten ditue saltzeako. Herri bat merkatu bat lelopean, Gorbeialde, Gorbeia, Bizkaiko Foru Al-

dundia eta Udalaren babesagaz prestatu da merkadua Ubiden.

Dozena bat salmahai inguru egongo dira, baita talogile bat be, eta, beraz, tradiziozko produktu hau dastatzeko aukerea egongo da. Jai giroa ipinteko trikitixearen musikea ez da faltauko.

Herri bat merkatu bat, tokiko merkatarien beste merkaduetan legez, Ubiden be egindako erosketa guztiek tokiko produktuen

loteen zozketan parte hartuko dabe.

ZEANURI

Ikasleentzako garraiorako dirulaguntzak emongo ditu Udalak

Erredakzinoa

Eskola garraiorik ez daukien 16 urtetik gorako ikasketa ofizialak egiten dituen ikasleentzat izango dira. Zeanuriko Udalak auzunetik plazara mobidutako gastuaren %80a izango da. Urteko gastua kalkuletako, 0,10 euro izango da kilometroko. Eskariak aurkezteko epea abenduaren 17ra artekoa da.

IGORRE

Autodefensa Feminista tailerrera izen emotea zabalik dago 12ra arte

Erredakzinoa

Zemendiaren 19an hasi eta abenduaren 10era arteko barikuetan, *Autodefensa Feminista* tailerra egongo da 18:00etatik 20:00etara Igorreko Kultur Etxean. Edade guztietako andrak hartu daikie parte eta izena emoteko epea hilaren 12ra arte egongo da zabalik.

Autodefensa Feminista tailerrak, indarkeria matxistea identifiketako aukerea emoten dau, eta horri aurre egiteko baliabideak ipinten ditu partaideen eskura. Autoestimua eta segurtasuna indartzeko teknika fisiko

eta psikologikoak erakutsiko ditu Ester Lopez Monje formatzaileak. Norbere burua defendidutako eskubidea gauzatu ahal izateko.

Izen emotea

Ilgoran Jabekuntza Eskolako tailer eta jarduera guztietan izena, <http://www.arratia.net/eu-ES/Zerbitzuak/Berdintasuna> webgunean emon daiteke; Arratiako Udalen Mankomunitatean bertan edo 94 631 17 17 telefonoan eta udaletxeetan, jarduerak hasi baino astebete lehenagora arte. Jarduera guztiak debalde dira eta umeak jagoteko zerbitzua egongo da.

ARTEA

Aurrekontuen gaineko batzar informatiboa egingo dau Udalak

Erredakzinoa

Abian da Arteko Udalaren 2022ko aurrekontuak egiteko prozesu parte-hartzailea eta Udalak publiko egin dau prozesu horren egutegia. 2022ko aurrekontuak egiteko prozesua, urri bigarrenaren 22an hasi zan udaletxeko Ogasun Batzordearen batzarraz. Zemendiaren 2an, 18:30ean, batzar informatiboa egongo da Kultur Etxean herri-

tarrek ekarpenak egiteko informazioa euki dagien. Ekarpentzen zemendiaren 19ra arte egin ahal izango dira.

Behin ekarpenak jasota, alderdikaz batzorde informatiboa zemendiaren 22rako aurreikusten dau Udalak. Ondoren, abenduaren 10ean, Ogasun Batzordeak aurkeztuko dau behin-behineko aurrekontua eta 17an egingo da ez-ohiko bilkura udaletxean aurrekontuak bozkatzeko.

IGORRE

Urriko Martxa ospatuko da Igorren

Erredakzinoa

Igaz antolatu ez bazan be, atzen edizino bietan Hego Uribe antolatu eta ospatu da martxea. Oingoan, eskualde desbardinatoko gazte asanbladak batuteko helburuagaz Arratiara be luzatu dabe deialdia. Izitu gazte antolakundeak, Etxebarriko gazte mobimentuak eta Kiñu Gaztetxeak antolatu dabe urri bigarreneko iraultzearen omenezko egitaraua.

Hasikera baten Zeberiotik pasetakoan zan martxea baina baimen arazoak dirala eta, Arrigorriagan egingo dabez zapatuko ekintzak. Izena emoteko 688 606 765 telefonora deitu edo urrikomartxa@gmail.com helbidera idatzi behar da. Astegoen osoan parte hartuko dabenek 20 euro ordainduko

dabez, egun solteak aukeratuten dabenek 8 euro eguneko.

Etxebarrin hasiko da martxea, hilaren 5ean. Hurrengo egunean gosaldia eta Arrigorriagarako bidea hartuko dabe menditik eta bidean autopista elektrikoaren inguruko berbaldia egongo da. Arrigorriagan bazkaldu ostean, hainbat tailer eta berbaldi egongo dira. Eguna amaitzeko afaria eta karaokea egongo dira.

Domeka goizean, 10:00etan Igorrera abiatuko dira. Arginatzen berbaldia egiteko geldialdia egingo da Kiñu Gaztetxera heldu aurretik. 14:30ean Igorreko Gaztetxean bazkaldu eta bakarrikzketak Jazz In Hell "Bikote komikoa" egongo da 17:00etan, gero agur ekitaldiagaz emongo jako amaierak III. Urriko Martxari.



LEMOA

Aire zabaleko kirol instalazino barria zabaldu dabe Lemoan

Erredakzinoa

Bizikletea, patinak, patinetea, gurpildun aulkia, monozikloa... motor bako gurpildun edozergaz erabilteko 700 metro koadroko instalazinoa da. Ibilbideak 89 metro ditu eta Agirre Lehendakari kalearen parean dago instalazinoa. Lanak egiteko aurrekontua 36.287,90 eurokoa izan da. Erabiltzaile talde askoren beharrik beteteko pentsauta dago, eta ez dago diziplina, maila, genero edo adin bakar batera mugatuta. "Mota horretako instalazinoek 2 urtetik 99 urtera bitarteko erabiltzaileak hartzean ditue", Udalaren arabera.




Holango proiektuakaz Lemoako Udalak herritar guztientzako kirol irisgarriak bultzatu gura ditu. "Gure us-tez, pumptrackak potentziala dauka herriko jentearentzako aisialdi eta to-paleku bihurtzeko, eta hori erabilteko ez da espezializazino maila handirik behar. Persona bakotzak bere beharretara egokitu ahal izango dau, kirola egin eta ondo pasau" dino Ioritz Fernandez kirol zinegotziak. Gainera, instalazino horreek aukerea emoten dabe UCik (Txirrindularitzaren Nazinoarteko Batasuna) oin dala gitxi arautu dituan bizikleta lehiaketa batzuk egiteko, baita patin eta patinete lehiaketak be.

LEMOA

Bonuak atera ditue Lemoan herriko merkataritzea bultzatzeko

Erredakzinoa

Lemoako Udalak eta Lemoa Ureztatzen merkatarien alkar-teak urtebeterako hitzarmena sinatu eta deskontu bonu kanpaina ipini eben martxan urri bigarrenaren 18an. Holan, Lemoa Ureztatzen, merkatar, ostalari eta zerbitzu enpresen alkar-teak, Udalaren laguntzeagaz 3.595 euro bideratuko dauz deskontu bonuak aterateko. Kanpaina, bonuak amaitu arte luzatuko da. Saltokietan bananduta 719 deskontu bonu dagoz. Bonuak ez dira erosi behar, saltokira joan, giti-xenez 12 euroko erosketea egin eta 5 euroko deskontua eskatutea nahikoa da. Saltoki bakotzak bonu kopuru mugatua dauka eta bezero bakotzak bonu bakarra gastau leike saltoki bakotxean. Non eskatu deskontua Kanpainan 24 komertzio- hartzean dabe parte: Ortuzar arrain-



degia, Iratxe Ruiz uleapaindegia, Alday harategia, Autoservicio Arraibigane, Montero Abrasivos, Lemoako Batzokia, Luzea Beauty, Laiane uleapaindegia, Autoservicio Ainhua, Frutas y verduras Yasmin, Kresala taberna, Tximeleta, Ilune Foto, Lezat estetika zentroa, Ezkur urdaitegi-gaztaitegia, Merceria Perfumeria Josier, Atxeta taberna, Mailuki taberna, Lemoa Doner Kebab, Marigorringo, La Herradura taberna, Panaderia Lemona, Herriko Denda Amalaur eta Lemoako farmazia.

IGORRE

Iru-ne Costumero Britainia Handiko konferentzia feminista baten egon da bere kasua kontetan

Erredakzinoa

Filia alkar-teak konbidauta, Iru-ne Costumerok, ez dagoan GAS (Gurasoen Alienazino Sindromea) argudiatuta, Bizkaiko Foru Aldundiak zelan kendu eutsan indarrez alabearen zaintza kontau eban urri bigarrenaren 16an, 1.000 feministen aurrean, Portsmouthen, Britania Handian urtero egiten dan konferentzia feministan. Filia alkar-teak andra eta neskatoen kontrako indarkeriaren aurka egiten dau behar eta Costumero konbidau eban "ikono" bat dalako "Guraso Alienazino Sindromearen kontrako burrukan Espainian eta latinoameriketari" eta gai horretan aditua dalako, besteak beste. Igorrekoak epailearen aurrean jarri ebazan BFAko Haurren Arreta Zerbitzuetako lau langile eta kargu; tartean, Gizarte Ekintza diputadua, baina Probintziako Auzitegiak absolbidu ebazan. Ha-ta guzti be, Costumero hainbat helegiteren ebazpenen zain dago. Portsmoutheko konferentzian, NBEk estadu espainiarra txarretsi ebal

kasu honengaitik ekarri eban gora. EAEko erakundeek adin txikikoen ebaluazinoan, "tratu txar psikiko" atalean, "guraso figurak gatazkan instrumentalizatzea", hau da GASa, jasoten dauan dokumentua erabilten jarraituten dabela salatu eban Costumerok eta beste herrialde batzuetan be apliketan dala andren kontrako indarkeria tresna hau salatu eben Britania Handiko feministek.

Portsmoutheko berbaldia Existiduten ez dan GASa tortura instituzional izugarria dala Euskal Herriko umeentzat, baina badakiala "tortura bera jasaten dabela Espainia osoan eta beste herrialde batzuetan" esan eban Costumerok konferentzian. "Hemen nago nire alabeagaitik. Oin dala 4 urte baino gehiago ama kendu eutsien, indarrez, aldeaz aurretik abisau barik, uniformedun poliziakaz. Orduan 5 urte eukazan eta laster, urtailean, 10 urte egingo ditu eta oindino ez deusie itxi amagaz bere etxera, bere habitat-

era itzultzen". Umea eroan eben eguneko grabazinoa ipini eta harrezkero bizi izandakoa kontau eban gero. "Lau urte baino gehiago izan dira, gauez amagaz egon barik, astegoien barik, amaren egun barik, amaren al-deko aitita-amama eta lehengusu-lehengusin barik. Astean bitan ordu gitxi batzuk amagaz eta terroristeaz izango balitz legez zelatatuta. Alabeagaz nengoanean barre egiten baneu, histrionikoa nintzan; triste egon ezkero, alabeagaz ez nebala egon gura inoen. Foru Aldundiak kontratatetan dituan enpresek dana epaitu eta manipulau egiten eben". Bere kasuan Bizgarri dala monopolio osoa daukan enpresea salatu eban Portsmouthen Igorrekoak: harrera etxeak, familia topaguneak... eta Eusko Jaur-laritzaz eta Bruselatik dirulaguntzak jasoten dituala. Espainiako estaduan 40.000 ume tuteladu egotea ez dala normala be esan eban.



ZEBERIO

Aurrekontu- etarako proposamenak jasoko ditu EH Bilduk

Erredakzinoa

Zemendiaren 5ean, 18:30ean, plazan, EH Bilduk, bere jardunbide eta erispideakaz bat datozen zeberioztarren proposamenak jasoko ditu, bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa aztertu ondoren, Udal gobernuaren aurrean aurkeztuteko eta 2022ko aurrekontuetan egon daitezan saiaturko da. Proposamenak, EH Bilduren jardunbide eta erispideakaz bat datozenak, Udal eskumenekoak, tekniko eta ekonomikoki bideragarriak eta Zeberion bizi diran herritar guztien edo auzo baten interesa eta ongizatea bermatzen dabezanak izan behar dira. "Gure aldetik, proposamen horreek guztiak sutsu defendiduko doguz eta aukeren arabera, EAJ-PNVgaz adosten saiaturko gara" agindu dabe. Zemendiaren 5ean aurrez aurre aurkezteaz gainera, proposamenak jasoteko galdetegi bat be ipini dabe herritarren eskura edo-eta zeberio@ehbildu.eus helbidera idatzi daiteke.



ARTEA

Ekomuseoko proiektu handiak herria itoko dauan bildur dira Aldatuz Herri plataformakoak

Erredakzinoa

Artean hileta eleizkizunak dagozanean herria bete egiten dala eta BFAk Arratiako turismoko traktore moduan planteetan dauan proiektuak herria itoko dauan bildur dira Aldatuz Herri Plataformakoak. Udal gobernuaren (EAJ-PNV) Ekomuseoa musikara bideratuteko proiektua, "seguru asko polita izango da, Arteako herriari merke urtengo jako eta seguru asko batzuentzat ona izango da, baina batzuetan, polita, merkea eta ona dana, garesti urteten da". Izan be, proiektu handia da, eta hori gero jentea ekarten justifikau behar da. Jente asko eta astegoien guztietan. "Hau ez da Arteatik urtendako proiektu bat. Hau Bizkaiko Foru Aldunditik eta Eusko Jaur-laritzatik etorritako proiektu bat da, kanpotik etorritakoa eta holango proiektu handiek herri txikiak ito egiten ditue. Horixe da gure bildurra" azaldu deutso BEGITURI Iosu Murgia Aldatuz Herri Plataformako zinegotziak. Parte-hartzeari jagokonean be, jentearen parte-hartzea eskatu arren, daborduko dana ebatzita dagoala eta proiektua ez dala aldatuko uste dau.

JUAN DE ARRATIA

Juan de Arratia izena eukan Victoria naoko itsasmutila

Datorren urtean, 2022an bostehun urte beteko dira, Juan Sebastian Elkano eta beste 17 itsasgizon, tartean 3 bizkaitar, munduari bira emonda bueltau zirala. Hori dala-eta, Bizkaiko Merkataritza Itsasketako Kapitainen Elkarteak (BMIKKE) Gines Gines Graoren *Ni izan nintzen munduari bira eman zion lehen mutil koskorra* liburua berrargitaratu dau. Mutil koskorrak Juan de Arratia eukan izena.



portugaldarra zan espedizinoko buru. Espedizinoa 1519ko urri lehenengoaren 20an itsasoratu zan Sanlucar de Barramedan. Hiru urteko bidaia izan zan.

Magallaes Filipinetan hil eben 1521ean apirilaren 27an, eta maiatzaren 2an, Concepcion

naoa erre eben. 115 marinela inguru eta itsasontzi bi baino ez ziran geratzen ordurako, Trinidad eta Victoria itsasontziak, hain zuzen be. Urri lehenengoan, marinelek Elkano izentau eben kapitain eta honek Victoria naoko agintea hartu eban. Moluketan, Elkanok jatorrizko plana aldatu eta aurrera egitea proposatu eban, mendebalderantza segidutea, hain zuzen be, eta, beragaz joan ziranek emon eben lehenengo mundu bira. Trinidad naoko kapitainak barriz, Amerika hegoaldetik itzultzea ebatzi eban. Itsasontzi biak banandu ziran beraz, eta Victoria naok munduari bira emon eta Lurraren biribiltasuna egiaztu eban.

Victoria ontzia 1521eko abenduaren 21ean urten zan Moluketako Tidore irlatik Sevilharantz. Esandako moduan, 18 baino ez ziran ailegau, 1522ko urri lehenengoaren 6an. Tartean, Victoria

naoko itsasmutil txikia, Juan de Arratia.

Juan de Arratia

Istorioren protagonisteak, munduari bira egin ostean Elkanogaz lehorreratu zan marineletako bat da, Juan de Arratia, bilbotarra, Javier de Arratia eta Martina Astondoren semea, hain zuzen be. Holan egiten dau bere buruaren aurkezpena narratzaileak: "Bilbon jaio nintzen 1505ean. Uribarriko errebaleko etxe pobre batean. Nire aitak Javier de Arratia zuen izena, lanbidez arrantzalea; eta Martina Astondo nire ama, herriko emakume bat. Eta ni, Juan de Arratia eta Astondo, sei nebarreben arteko seigarrena naiz".

Bilbokoa zan eta "Botxito" eukan ezizena. Bilbokoa izanda, misteriorik ez dauka ezizenak; bai ordea abizenak. De Arratia eta Astondo. Familiaren jatorria, Arratiakoa ete zan?

Bilbokoa zan eta "Botxito"

eukan ezizena. Bilbokoa

izanda, misteriorik ez

dauka ezizenak; bai

ordea abizenak. De

Arratia eta Astondo.

Familiaren jatorria,

Arratiakoa ete zan?

Erredakzioa

Gines Graoren lanak 15 urteko mutiko baten begiakaz kontetan dau bidaia hori, modu errazean idatzita, lehenengo personan. Gaztelaniaz idatzi eta 1963an Bizkaiko Aurrezki Kutxak, (gaur egun BBK) argitaratu eban, "*con censura eclesiástica del Obispado de Bilbao*". Izan be, "orduko sasoiko espresinoak mantendutena dira. Batzuetan arraro egiten da. Baina kontua da orduko garaian zensura pasau behar zala liburu bat argitaratu ahal izateko eta hemen argi ikusten da. Ez dakit holan idatzi ete eban idazleak zensoreak ondo ikusteko, ala zensoreak berak sartutakoak diran hemengo espresino batzuk" azaldu deutso BEGITU liburua-aren aurkezpena egin eban Aitor Etxebarri Atutxa Portu eta Itsas Gaietako zuzendariak. Izan be, frankismoak bere propaganda zabalduteko zineetan proiektetan eban *No-doa* ekarten dau gogora batzuetan kontetako moduak.

Egileak gazteei zuzendu eta kapitain izateko ikasten egoan bere semeari eskaini eutsan kontakizuna, "Francisco Jesus nire semeari, zeinak oso gazte eta

praktiketako bidaietan itsaso asko zeharkatu dituen dagoeneko, Espainiako Merkataritza Ontzidiko Kapitain izateko helburu nobleak bultzatuta".

Datorren urtean, munduari emondako lehen biraren 500. urteurrena ospatuteko eta Juan de Arratia omentzeko argitaratu ditu Bizkaiko kapitainen alkarreak, Gines Graoren lanaren 500 ale euskeraz eta beste 500 gaztelaniaz, Eusko Jaurlaritza eta Bilboko Udalaren laguntzeagaz. Labayru Fundazinoak Juan Luis Zabalak euskeratu dau kontakizuna. Edizino zainduak, publikatu zan sasoiko gazteentzako abentura liburuen estetikea gordetzen dau.

Munduari bira

Munduari bira emon eutsan Magallaes eta Elkanoren espedizinoa 5 itsasontzik eta 247 (edo 234 iturrien arabera) itsasgizonek osatu eben. Itsasontziak, tamai- nuaren araberrako ordenean, Trinidad, San Antonio, Concepción, Victoria eta Santiago ziran. Elkano Concepcion itsasontzian itsasoratu zan. Espedizinoaren helburua ez zan munduari bira emotea, Moluketara espezia bila joatea baino eta Fernando Magallaes

ATEAK ZABALTZEKO EGUNA (2020, 2021 eta 2022an jaioetako haurrentzako)

HAZIA PROIEKTUA
HAUR HEZKUNTZA
0-2 URTE

ANDRAMARI
ZORROZAKO IKASTOLA

EGUNA: 2021/11/13
ORDUA: 10:00 / 11:30
LEKUA: Ikastolan

Bertaratzeko...
LASTER ARTE!

IPINI ZURE IRAGARKIA BEGITUN!

Informazinoa: **649 979 115** eta inigoirua@begitu.eus

LEHOA
946 31 44 06
ZABAL@ALKIZABAL.NET

ALKIZABAL
LEHOA - BASAURI
www.alkizabal.net

BASAURI
946 51 05 99
BASAURI@ALKIZABAL.NET

MAKINEN ALOKAIRUA ETA SALMENTA



INSTANT UPRIGHT
QUALITY & STRENGTH YOU CAN TRUST

filippini GENERATING SETS

Nilfisk

JCB

MANITOU HANDLING YOUR WORLD

CTX CONTAINEX

TeknoDidaktika

HIKOKI

POWER PRODUCT ENERGY

MASTER

INSTANT UPRIGHT

UDAGOIENENKO DENPORALDIA 2021



STIHL

X **Xavi CR**
Local Guide · 37 reseñas · 35 fotos
★★★★★ Hace 2 semanas
La mejor marca y el mejor servicio. Súper contento de trabajar con ellos. Visitar sus instalaciones siempre es un lujo.
👍 100

M **Marcos G**
6 reseñas
★★★★★ Hace 1 mes
Un trato excelente, súper profesionales para aconsejarte lo que necesitas, sin duda el mantenimiento de mis máquinas lo haré aquí.
👍 200

A **Alvaro GC**
2 reseñas
★★★★★ Hace 1 semana
Hace unos días compré una motosierra y el trato fue estupendo, me informó y recomendó de todo muy bien, además fue muy detallista. Totalmente recomendable.
👍 650

D **Diego CP**
9 reseñas
★★★★★ Hace 3 días
¡¡Son unos profesionales como la copa de un pino!!
👍 300

“ZURE POZA DA NIRE SARIA”

PUBLIZIDADEA Eskaintza baldinaz 2021eko abenduaren 23ra arte, hogaikotako STIHL lurrungile gurtiak, BR 600 eta BR 700 haize-makinak, 2021

GARAJE FELIPE

www.garajefelipe.stihl-tienda.es

📍 **Garbe, 2 - Igorre**
📞 **946 736 339**
✉ garajefelipe@euskalnet.net

📍 **Montorra auzoa, Behea 1º - Amorebieta**
📞 **946 309 039**
✉ garajefelipe2@telefonica.net

TXIRRINDULARITZEA

Laugarren egin dau Julen Zubero lemoaztarrak Titan Desert lasterketan



Julen Zubero.

Erredakzinoa

Julen Zubero Aldekoa txirrindulari lemoaztarrak laugarren egin eban sailkapen orokorrean eta bigarren bere edadeari jagokon Eliteko sailkapenean, Marokoko basamortuan urri bigarrenaren 10 eta 15aren bitartean jokaturako Titan Desert 2021 lasterketan. Titan Desert-en lehenengoz parte hartzean eban Konny Looser suitzarrak irabazi eban lasterketea. Podiumean, euskaldun bat egon zan; Haimar Zubeldia gipuzkoarra, hain zuzen be, bigarren egin ebana. Andrazkoetan, lehenengoz parte hartzean eban Ariadna Rodenasek irabazi eban, Ramona Gabriel beteranoaren aurretik. Sei etapa izan dira eta aurrean egon da Zubero guztietan, garaipena lortu guran. Lehenengo etapan,

esaterako, etapako irabazleak 42 segundo bakarrik atera eutsazan Lemoakoari. Aurten ez dau etaparik irabazi, baina onenen artean dagoala erakutsi dau. Sano balorazino ona egin eta datorren urtean parte hartzeako be motibauta dagoala dino. Izan be, oztopoak oztopo, oso postu onean amaitu dau lasterketea. "Urte gatxa izan da, karrera asko atzeratu dira eta hau be bai. Holan, tenporadea luze egiten da eta kostau egiten da konzentrazioa mantenidutea, baina postu ona egin dot eta egunero egon naz etaparen garaipenetik hur. Etxean nagoanean eta ikusten dodazanean emaitza guztiak, eguneroak eta orokorrak, ikusten dot aurrean nagoala eta sano pozik nago" azaldu deutso BEGITU Julen Zuberok.

KROSA

Hasi dau kros denporaldia Onditz Iturbek eta Laudion bigarren egin eban

Erredakzinoa

Mendi lasterketei agur esan ez arren, Lemoatx Trailen parte hartuko dau eta, hasi dau kros denporaldia Onditz Iturbe lasterketari igorretarrak. Nazinoarteko proba bitan hartu dau parte, Zornotzakoan urri bigarrenaren 24an eta Laudiokoan 31n, hain

zuzen be, eta zemendiaren 7an, Lasarteko kros internazionalean be parte hartzeakoa da Iturbe. Zornotzan, 15. egin eban andrazkoen sailkapen absolutuan eta 2. Laudion. Burundiko Francine Niyomukunzik irabazi eban lasterketea Zornotzan eta Majida Maayouf BM Bilbao taldeko marokoaurreak Laudion.

JARDUNALDIAK

Bizikletan ibilten ikasteko ikastaroa eta kirol barriak ezetuteko aukerea egongo da Lemoako kirol jardunaldietan

Zemendiaren 11tik 21era, Kirol eta ariketa fisikoaren jardunaldiak antolatu ditu Lemoak. Berbaldiak, liburu aurkezpenak, ohikoak ez diran kirol modalidadeen erakustaldiak eta kirol ekitaldiak egongo dira herriko kale eta kirol instalazinoetan, lemoaztarrak kirol eta ariketa fisikoa egiten animetako.

Erredakzinoa

Bizkaiko Mendi Lasterketen Txapelketea jokaturako da Lemoatx Trail mendi lasterketan, jardunaldiak amaierea emoteko. Mendi lasterketak, txirrindularitza eta peloteak izango dabe batez be protagonismoa, baina ohikoa ez dan beste ikuspuntu batetik publiko orokorrari hurreratzeko asmoz. Holan, esate baterako, bizikletan ibiltzeko ikastaroa egongo da astelehenetik barikura Arlonagusia futbol zelaiko aparkalekuan eta pelota modalidade desbardinetako erakustaldiak, bote luzea edo pasaka, eguraldiaren arabera, egongo dira zapatuan, hilak 20 kanean edo frontoian. Jardunaldiak bat egiteko, Udal Liburutegian, kirol eta ariketa fisikoaren inguruko liburuen

txokoa egongo da.

Egitaraua
Zemendiak 11, eguna
19:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Jokin Lizeagaren berbaldia *Gozamena ala sufri-mentua* Kotxepin Kultur Etxean.

Zemendiak 15, astelehena
16:30etik 17:30era arte, egunero barikura arte bizikletan ibiltzen ikasteko ikastaroa Arlonagusia futbol zelaiko aparkalekuan. Izena emon www.lemoa.net webgunean. 18:30ean, Pickleball kirol modalidadearen erakustaldia kiroldegian, Kirilan Kirol lanak enpresearen eskutik.

Zemendiak 16, martitzena
17:00etatik 18:45era, ludotekatik frontoira. Izena emon www.lemoa.net webgunean.



Ainhua Tirapu.

AZKOREA

Sherpa.ai Aizkolarari Txapelketa Nagusiko finalerako sailkatu da Aitzol Atutxa

Erredakzinoa

Urri bigarrenaren 30ean Zestoan jokatu zan Sherpa.ai Aizkolarari Txapelketa Nagusiko finalerako pasea lortzeako sailkapen saioa, hamahiru azkolaritik seik lortu eben finalerako txartela, tartean

Aitzol Atutxak. Hilaren 21ean Bilbao Arenan jokaturako dan finalean dimoztarragaz batera egongo diranak honeek dira: Mikel Larrañaga (16'44"), Eneko Otaño (17'57"), Iker Vicente (18'11"), Aitzol Atutxa (19'16"), Julen Alberdi (19'25") eta Jon Irazu (20'03").

18:00etan, *Futbola eta euskara* solasaldia eta entrenamentua Gaizka Garitano eta Ainhua Tirapugaz Arlonagusia futbol zelaian. Udaleko Euskera Sailak, Jai Bartzordeak eta Lemoako Harrobi Futbol Klubak antolatuta.

Zemendiak 17, eguaztena
17:00etatik 18:45era, ludotekatik frontoira. 17:30etik, 18:30era, *Jarduera fisikoaren garrantzia bizimodu osasuntsua izateko* tailerra. Udaleko Gizartegintza Sailak antolatuta. Kotxepin Kultur Etxean.

Zemendiak 18, eguna
19:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, *Bidea ipar* liburua aurkezpena eta *Iker. Mendia. Etxea* dokumentalaren proiektzioa Kotxepin Kultur Etxean.

Zemendiak 19, barikua
19:00etan, Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatuta, Txutxin 2021 Txapelketako finalaurrekoak kiroldegian.

Zemendiak 20, zapatua
11:30ean, Guraso Elkartek antolatuta 2. duatloi txikia eskolan. 12:30ean, Lemoako Esku Pilota Taldeak antolatuta, bote luzea eskupelota modalidadearen erakustaldia Juan de Ajuriagerra kalean. Eguraldi txarra egin ezkeror, pasaka eskupelota modalidadearen erakustaldia kiroldegian. 18:00etan, Lemoa Txirrindulari Elkartek antolatuta, Txirrindularitza eskolearen aurkezpena eta *Atzoko eta gaurko txirrindulariak* berbaldia Kotxepin Kultur Etxean.

Zemendiak 21, domekea
08:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Lemoatx Trail 2021.

Sei enbor ebagi ebezan azkolariek: oinbiko bi, 60 ontzako bi eta kanaerdiko bi. Andrazkoetan hiru azkolarari honek jokatuko dabe Bilboko finala: Karnele Gisasola (9'05"), Maika Ariztegi (9'08") eta Uxue Anso-rreri (9'11").

ERRUGBIA

Zekorrek liga hasikera
gatxa euki dabe

Erredakzinoa

Zekorrek errugbi taldea osotuta urri bigarrenaren 16an, Igorren hasi eben ligea Zarauzko taldearen kontra, Euskal Ligako 2. mailan. 10-40 galdu eben partidua arratiarrek.

Jente barria hurbildu da taldera aurten eta lortu dabe jokatu ahal izateko taldea egitea. Atzen urte bietan Gernika B taldekoakaz batera ibili dira arratiarrak.

Hurrengo partidua Iruñan La Unica taldearen kontra jokatzekoak ziran baina hainbat arazo dirala eta ezin izan eben partidua jokatu.

Datorren partidua Urgozo Zor-notzakako errugbi taldearen kontrako derbia izango da, Igorreko

San Txisme zelaian jokatu dana zemendiaren 6an arrastiko 16:00etan.



MENDIA

Lemoatx Trail sendotzen
doa urtean-urtean

Erredakzinoa

Bosgarren edizinoa da aurtengoa, 2016an hasi zan-eta Lemoako Ganzabal Mendi Taldea Lemoatx Trail mendi lasterketea antolatuten. Lehenengo urtean lasterketa bakarra izan zan, 16 km-koa, eta 200 lagunek hartu eben parte. Aurten, Bizkaiko Txapelketako lasterketa bik, 24 km-koa eta 16 km-koa junior kategoriakoa, 24 km-ko mendi martxeak eta Lemoatx Txiki, 8 km inguruko ibilbidea daukan martxeak osotuten dabe Lemoatx Trail. Lemoatx Trail mendi jaia be bada, eta herrian, musikeak, taloak, kafeak eta foodtruck-ek... ipiniko dabe jai giroa.

Lehenengoak urtetan, 08:00etan, 24 kilometroko mendi martxakoak izango dira. Ondoren, 09:15ean, lasterketa nagusiko partaideak urtengo dira. Lasterketa hau aurten Bizkaiko Txapelketea da kategoria absolutuan; hau da, 2000 urtean eta lehenago jaiotakoak neurtuko dira bertan. Junior kategoriako Bizkaiko Txapelketako lasterkariak izango dira hurrengoak; 10:30ean urtengo dira 2001, 2002 eta 2003 urteetan jaiotakoak 16 kilometro egiteko. Azkenik, 11:00etan, Lemoatx Txiki, 8 km-ko martxea abiatuko da.

Lasterketa eta mendi martxen ibilbidea herriko auzuneetatik eta guneko historiko interesgarrietatik pasetan da; Gerra Zibileko lubakietatik, Elorriaga eta San Anton baseleizatik, barbarako. Aurreko

urteetako ibilbide ia bardina baina aldaketa txiki batzuk egin dituela azaldu deutso BEGITU Jon Ander Susaeta antolakuntzakoak. Aldaketok "parte-hartzaileen iradokizunak entzunda eta urterik urtera hobetuz, asfalto gitxiago, bide estuak ekidinez..." egin ditue.

Mendi jaia

Lemoatx Mendi Trailek, Lemoako Kirol eta Ariketa Fisikoaren Jardunaldiei ipiniko deutse amaierera zemendiaren 21ean. Mila persona inguru batuko dauan mendi jaia izango da eta jai giroa herri osoan zabalduko da.

Lasterketearen harira eta jardunaldien barruan beste ekitaldi bi antolatu ditu Ganzabal Mendi Taldeak Kotxepin Kultur Etxean. Hilaren 11n, 19:00etan, Jokin Lizeagak, mendi maratoni baten ia bizitza galdu eban lasterkariak, *Gozamena ala sufrimentua* berbaldua emongo dau; eta 18an, 19:00etan, Unai Ugartemendiaren *Iker Karrera. Bidea Ipar* liburuaren aurkezpena egongo da. Aurkezpena hasi aurretik, *Iker. Mendia. Etxea* dokumentala eskainiko da.



HALTEROFILIA

Espainiako Halterofilia Txapelketea
irabazi dau Bruno Soto lemoaztarrak

Erredakzinoa

Eki Lizaso Bringasek eta Javier San-de Diezek osotu eben podiuma.

Egun batzuk lehenago, hilaren 2 eta 11n Saudi Arabian jokatu-tako Munduko sub 17 Txapelketan, arrankadan 124 kilo altxau ebazan, berak daukan Espainiako errekorra bardinduz eta 160 kilo denpora bitan, errekorra apurtuz. Hori dala-eta, munduko zazpigarrena izan zan. "Espainiakoan ez eban kilo asko altxau, irabazten baino ez zan saiatu. Aurten lehiaketa asko egin ditu eta ez zan komenidu irabazteaz aparte beste ezer egitea" azaldu deutso BEGITUri, Bruno Jose Soto aita eta entrenatzaileak.

Urte ezin hobea

Munduko txapelketan zazpigarren egiteaz aparte, Europakoan be bosgarren egin eban abuztuan. Lehenago, apirlean, Junior mailako (20 urte arte) Espainiako Txapelketea jokatu eban eta han be hiru urrezko domina lortu ebazan bere pisuko kategorian.

PELOTEA

Klub VI. Txapelketa Nazionaleko
finalera heldu da Lemoako taldea

Erredakzinoa

Lemoak urdinez eta Ultzamak gorritz, hiru partidu jokatu ebezan hilaren 23an: lau t'erdian, banaka eta binaka. Aitor Etxebarria eta Mikel Aurrekoetxeak lortu ebezan bi puntu irabazleak. Partidua amaitu orduko adierazo eban Aurrekoetxeak: "Lagarren urtea da nazionaleko txapelketan gagozala eta askotan itxi dogu tomeoa finalaurrekoetan, aurten finalerako gogoakaz etorri eta lortu dogu". Gero binaka ibili ziran Elezkano eta Egaña, baina 5-22 galdu eben aurrez aurrekoa. Finala Zumarragan jokatu da zemendiaren 7an.

Udagoieneko Txapelketea Diman Diman be jokatu da eskupelota

Cadizeko San Fernandon jokatu zan 17 urte arteko

Espainiako halterofilia txapelketea urri bigarrenaren

23 eta 24ko astegoienean eta Bruno Soto Fernandez

kirolari lemoaztarrak urrea lortu eban 89 kiloko

kategorian; arrankadan 110 kilo altxau ebazan,

denpora bitan 140 eta beraz, guztira 250 kilo.



Bruno Soto.

final bat. Hilaren 5ean, 19:00etan, Dimeko VII. Udagoieneko Txapelketearen finalean lehiatuko dira Garaio eta Urrekoatxa talde dimoztarrak. Txapelketea taldeka eta hiru partidura jokatu da aurten eta talde biak dagoz indartsu. Izan be, Garaioak 3-0 irabazi eben Kobasoren aurka. Aste bat be

randuago, urri bigarrenaren 29an Urrekoatxak hiru puntuak eroan ebazan Larraunganen kontra.

Holan, finalean dagoz Garaioako Elorz, Olazabalaga, Etxegarai, Rekalde eta Morgaetxebarria. Urrekoatxan partetik Ramirez, Alvarez, Alday, Aurrekoetxea eta Lazkano izango dira.



Lemoako pelotariak.



MAGIA

Magia ikuskizunak egongo dira Zeanurin hilaren 5 eta 6an

Erredakzinoa

Tor eta Txoborro magoakaz magia poteoa egongo da zapatuan, 19:30etik aurrera, eta *Aztikeriak* magia saioa eskainiko dabe domekan, 18:00etan, plazan. Holan, astegoien "magikoa" aurreikusten da Zeanurin.

Ilusionista honeek biek alkarlanean sortutako ikuskizuna da *Aztikeriak*. "Zer gertatuko litzateke mago batek, loak hartuta, bere ikuskizunera joatea ahaztuko baleu? Egoera hau oinarri hartuta, Tor eta Txoborro magoek alkarlanean sortu dabe magia saio era-

bat barritzailea. Uniberso magiko bat, antzerkia eta magia bilatuz logikatik aldentzen dana. Baina... dan dana?" Holan aurkezten dabe sortzaileek Zeanurin ikusi ahal izango dan ikuskizuna.



TAILERRA

Lan poetikoak egiteko tailerra antolatu dau liburutegiak Igorren

Erredakzinoa

Hilaren 4tik abenduaren 23ra, eguenero ordubetez 19:00etatik 20:00etara, Igorreko Udal Liburutegian izango da tailerra, Idoia Carramiñanaren eskutik. Izena aldez aurretik emon behar da liburutegian bertan ala 966 852 530 telefonora 16:00etatik 20:00etara deituta.

Taldea sortzeako, gitxienez, 5 lagunek emon behar dabe izena eta gehienez 12 lagun egongo dira.

Tailerrean euskerea izango da hizkuntza poetikoa, testu edo lan poetikoak garatzeko. Partaideek emozinoak ezetu eta gorputzetik orrira eroango ditue; euren bozen errastuak eta norbera eta

munduaren arteko hartu-emona aztertuko ditue.

Idoia Carramiñana
Idoia Carramiñana Miranda (Bilbo, 1985) euskal filologian lizentziatua, irakaslea, ikertzailea, itzultzailea eta idazlea da. Poeta batez be. 2014tik, Bilboko Grito de mujer Arte eta Poesiaren nazinoarteko jaialdia koordinetan dau. Bere *Bi poema* liburua argitaratu eban 2018an Amargord Ediciones argitaletxeak. Euskeraz eta gaztelaniaz dago idatzita eta "hizkuntza bi, mundu bi eta kultura biri" egiten deutso erreferentzia. Baita, "zergaitik ez" egilean bizi diran "genero bi, edade bi eta sentipen biri".

BASOA

Aurrera doa Basoa defendatzaileen etxearen crowdfunding kanpainea

Urri bigarrenean zabaldu zan eta zemendiaren amaierara arte egongo da zabalik kofinantziaketa kanpainea. Diru bilketeagaz, gitxienez 22.500 euro behar ditue eta 32.750 euro jasotea hobeezintzat joten dabe.

Erredakzinoa

Kanpainea amaituteko 26 egun falta ziranean, 18.355 euro jasota eukiezan, gitxienekoaren %81. Azpiegiturei jagokienez, beharrezko ikusten ditue komunak eta dutxak egitea, hamabost logela egokitzea eta suete industrialerako bidea hartzea. Beste alde batetik, diru nahikoa lortu ezkero ugerlekuko instalazioak hobetu eta energia fotoboltaikoa lortzeako eguzki plakak ipini gura ditue.

Identifikau daben beste atal bat da "eginkizunak". Honen barruan sartu dabez ordaintzen dabizen lan zehatzagoak. Etxea margoztea, lanparak, argiteria barriak eta hondeamakina baten alokairua besteak beste. Diru kantidada "hobeezinera" heldu ezkero, tximinia sistemak be hobetuko dabez.

Azken beharrizana da material eta tresneriaren erosketea. Pinturea, kableak, zementua eta kanpoko aldea garbi mantenidu-

teko tresnak adibidez. Proiektua lagundu gura dabenek <https://www.goteo.org/project/basoa> helbidean daukie egiteko aukerea.

Basoa proiektua

Basoa etxea, defendatzaileen eta ekintzaileen arteko alkartasun komunitadea sortzeako proiektua da. Esperimentazio gunea izan gura dau, autoku-

deaketan, horizontaltasunean eta parte-hartzean oinarrituta, komunitadean biziteko eta jarduteko modu bat, erakundeen menpekotasun barik eta gizarte antolaketako eredu alternatiboak bilatuz. Finantza autonomia, jaubetza kolektiboa, energia autosufizientzia eta konsumo zirkularra, ekologikoa eta tokian tokikoa bultzatzen ditu.



LEHIAKETEA

Eukene Uriartek irabazi dau Zeberio Ezagututen lehiaketea

Erredakzinoa

Aprilean hasitako lehiaketa honek Zeberio eta herriko ondarea ezetu eta ezetu arazotea eukan helburu, baita bertako euskerazko berbak transmitiduten lagundutea be. Apriletik urrietara, hamabostero galdera sortak atera ditu Udalak, Zeberio, bere ondare eta berbakerearen gaineko 100 galdera baino gehiago eginda. Irabazleak, Eukene Uriarte Intxaurrea (107 puntu), Mentxu Etxebarria Ayesta (106 puntu) eta Gesala Perez Junkera (102 puntu) izan dira, eta, hurrengoz hurrengo, 150, 100 eta 50 euroko balioko opari txartelak eskuratu ditue.

Modu parte-hartzailean egin da lehiaketea, etxeko txikienek nagusienakaz batera parte hartzeako moduan eta bertakoek

etorri barriakaz, "jakinduria transmitidutea izan da xedea, geure hizkuntzan, modu arin eta jostagarrian" azaldu deutso Begituri Beñat Iriondo zinegotziak.

Horretarako, hamabosterik behin hainbat galdera barri argitaratu dira. Galdera sorta barria publiketan zanean, aurrekoaren erantzunak argitaratzen ziran, parte-hartzaileek, galdetegia zarratu bezain pronto erantzunak eskura izateko. Baliokideak izan diran erantzunak be zuzentzat jo dira. Azken finean, lehiaketearen helburua herritarren jakintza "danon artean alkarbanandu, zabaldu eta herriko zaharren jakinduria berreskuratzea da, auzolanean. Etxea eskola bihurtzea izan da asmoa" dino zinegotziak.

Juan Manuel Etxebarria etnolinguistek lagundu eban gal-

deren prestakuntzan, batez be, herrian erabilten diran berbetan oinarritutakoetan.

Herriko jakintza herrian zabalduten

Zeberiorako beren-beregi, egindako lehiaketea izan da eta bertakoa izan dau oinarri, euskerea, ohiturak, esakera zaharrak, baserriak eta toponimiaren gaineko, besteak beste, galderak egin eta erantzunez. Helbide elektroniko bat baino ez da eskatu parte hartzeako. Guztira, 42 helbidek hartu dabe parte eta zuzen erantzundako galderen batez bestekoa %70 ingurukoa izan da. "Holango zeozer egiten dan lehenengo aldia izanda, esan behar da esperientzia sano positiboa izan dala bai parte-hartze aldetik baita jendartearen jarkearen aldetik bere, talde lana bultzatzea lortu dalako" balorau dau Iriondok.

HIGIEZINAK ETA ARKITEKTURA

Blitzgo dego jakitza

- Solentzen zein alokairuan
- Lurrak (jaskitza, landak, basak...)
- Etxeak/200 (jauak, baserriak, etxeak...)
- Garaioak
- Lokal komertzialak
- Pabilioiak
- Balnearioak

Bider dego proiektuak

- Irakin berrik erakitzeko
- Ereformen
- Arkitektura-proiektuak
- Barne diseinua
- CEE eta ITE-ak
- Hirigintza ohikularitza
- Negozioak irekitzeko kudeaketa

arratlia
INMOBILIARIA

Unibertsitate Agintea 25. kateak - Igoera
Bilboan 48.401.51.99 - 48.40.20.21
Bilboan 48.401.51.99 - 48.40.20.21
Bilboan 48.401.51.99 - 48.40.20.21
Bilboan 48.401.51.99 - 48.40.20.21

BEER & EDARIAK

Guillermo 659 48 28 39

Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24

Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06

Pozueta poligonos, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

Olaetxe
OPTICA Y LENTES

- Graduazioak
- Ikusmen terapia
- Ikusmen gaiturua
- Begi tentsioa
- Lentillen adaptazioa
- Kiroletarako betaurrekoak

Sabinio Arana 3, 48140 IGORRE (Bizkaia)
94 657 70 03 • olaetxeoptika@hotmail.es



Itzal eta txotxongilo antzerkia Lasarte Aretoan

Erredakzinoa

Zurrunka Teatroak *Aioko* antzezlan taularatuko dau hilaren 13an, 17:30ean Igorreko Kultur Etxeko Lasarte Aretoan. Ikuski-zun didaktikoa da umeei zuzendutako *Aioko*.

Itzalak, txotxongiloak eta hazur eta mamiko personak batzean dira alkarbultzaz hausnartutea helburu daukan ikuskizunean. Bertan, itzalek argia eraskutsiko deutsee emozinoz betetako bidaian parte hartzean dabenei. Abenturea, sorpresak, Geinu eta itzalak ez dira

faltauko bidaia honetan.

Sinopsia

Aioko sasoi baten irla alai bat



izan bazan be, aspaldian iluntasunak bertako biztanleen bihotzak hartuak zituan. Biztanleek, ez dabe gogoratzen euren herria oparoa izateko aniztasunak daukan balioa. Natureagazko errespetua ahaztu dabe eta baita bizitzaz gozatzeko denporea izatearen garrantzia be. Doe bereziak dituen Azkartxin eta Moteltxin dira istorio honetako protagonistak.



Korrontzik eta Amurizak kontzertua eskainiko dabe



Erredakzinoa

Zemendiaren 5ean, 20:00etan, Lemoako Kotxepin Kultur Etxean, *Koplariak* kontzertua eskainiko dabe Korrontzik eta Xabier Amurizak. Sarrerak udal webgunean dagoz salgai.

Korrontzik *Koplariak* izeneko diskoa kaleratu eban 2020an. Disko hau Korrontzik Xabier Amuriza bertsolari eta ikertzaileagaz egindako alkarlanaren emaitza da. Lan honek, koplagintzeari musika herrikoian daukan garrantzia emoten deutso eta hainbat koplazahar eta barri entzuteko aukerea egongo da Lemoan.

Xabier Amuriza eta Korrontzi Xabier Amuriza Zarraonaindia (Zornotza, 1941), bertsolari, politikari, idazle eta ikertzaileak, hainbat liburu eta disko argitaratu ditu eta euskaltzain urgazlea da. 2019an, Eusko Ikaskuntzaren bertsolaritza eragindako iraultzarengaitik eta literaturan, itzulpegintzan eta euskeran egindako lanarengaitik. *Koplariak* Amurizak atzen hamarkadetan bildutako eta sortutako koplak jasoten ditu, eta Korrontzi taldeko Agus Barandiaranek ipinten deutse trikitixegaz musikea koplak horreei.

Korrontzi taldearen hamargarren diskoa da *Koplariak*. Taldea 2004an sortu eban Agus Barandiaran trikitilariak. Bere helburua, euskal musika herrikoia eta antxinako hots tradizional beste ikuspuntu moderno eta garaikideago bat emotea zan, beti be trikitixa musikan oinarrituta, txalaparte albokea eta beste instrumentu tradizional batzukaz batera.



Arratia ez da sailkatu Bertsolari Gazteen BBK Sariketako finalaurrekoetarako

Erredakzinoa

Urri bigarrenaren 20an jokatu zan kanporaketea Mungian, Uribe Butroe eta Arratia taldeen artean. Uribe Butroe izan zan garaile eta zemendiaren 15ean Abadiñon jokatu dau finalaurrekoa. Sariketa honetan saioak sailkapen izakerakoak diranez, Arratiak ez

dau izan aurrera egiterik.

Saioa, Mungiako Torrebillera Aretoan jokatu zan eta herriko ikastetxeetako ikasleak egon ziran publiko moduan. 18 urte artekoan, Aner Zuloaga, Joane Bilbao eta Maindi Estiballes saiatu ziran finalaurrekoetarako pasea lortzean; 19 eta 24 urte bitartekoan barriz, Amaiur Atxa, Unai



Intxausti eta Iru ne Basagoiti izan ziran Arratiako ordezkariak. Saioko aurkezle lanak Peru Vidalek egin ebazan eta epaimahaia, Beñat Romerok, Leire Etxebarriak eta Miriam Juaristik osotu eben.

DUNBA

Errespetua!

Zeanuri HLHI-ko 6. mailako ikasleak

Ikasturte honetan errespetuaren gaiaren inguruan lanean gabiz, gelara albisteak ekarriz eta hausnartuz. Batez be, genero indarkeria, homofobia, errazakeria eta kutsadureagaz harremandutako albisteen inguruan berba egin dogu eta honeek dira ateratako ondorio batzuk:

Persona batek beste baten gainerik dagoala uste dauanean eta jokabide onartezinak dituanen, indarkeria erabilten dau. Nahiz eta gizartea aldatzen dagoala uste dogun, oindino genero indarkeria ugaria da gure inguruan eta asko dago egiteko. Adibidez azken egunetako albistetan irakurri dogunez, gizon batek andra bat hil dau Gasteizen bere seme-alaben aurrean edo-eta atleta keniatar

gazte bat eraila izan da. Euskal Herrian 112 andra hil ditue atzen 8 urteetan. Baina beste indarkeria mota batzuk be badagoz: iraintzea, jotea, mehatxuak egitea, aginduak emotea... Ez dogu ezelango erasorik onartuko!

LGBTBIQ+ kolektiboak be eraso ugari jasoten ditu oindino; adibidez, mutil homosexual bat hil eben Galizian, andra transexual bat jipoitu eben konorte barik itxi arte... Barri honeek entzuteak mina sortzean deusku, baina zer egiten dogu guk hori gelditzeko? Bakotxa dan langoa izan behar da, askea eta gustu desbardinak izatearren, ez dogu ezelango errespetu faltarik izan behar.

Hau da irakurritako albiste batek dinoana: "Sartzea ukatu euskuen baltzak izatearren". Errazakeriak gora egin dau azkenengo urteetan baina ez da egoera



barria. Errazakeria zure azal koloreagaitik, kultureagaitik edo bizilekua beste herrialde batera aldatzeagaitik desbardin sentidu arazotea da. Askok uste dabe persona maila desbardinak dagozala eta besteen gainerik dagozala, baina ez. Aniztasuna dagoan herri baten bizi gara eta beraz, aukera bardintasuna beharrezkoa da.

Planetako kutsadurea kalte larria da. Gure ustez, hau gelditzeko egoeraz konzienziau behar gara, etorkizunean ondorio larriak izango ditualako. Egoereari laguntzeko, garraio publiko gehiago egon beharko litzateke, herri batzuetan zakarrontzi gehiago jarri beharko ziran edota kutsatzeagaitik ondorio batzuk jaso beharko ziran



(fabrikei isunak, zigorrak...). Baina naturarentzako ondorioak egon badagoz, adibidez, aldaketa klimatikoa, poloak urtea, animaliak desagertzea... eta hori lehenbailehen gelditu behar dogu. Beraz guzti honegaz hurrengo argi itxi gura dogu: edozein gauza egin baino lehen ondo pentsetea beharrezkoa da. Arazoak konpontzeko modu bakarra berba egitea da, inori minik egin barik. Horregaitik aurretik aitatutako egoera honeei erantzuna emon behar deutsegu, ezin gara itxaroten geratu.

AGENDEA

ZEMENDIAK 2
ARANTZAZU

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura Udal Liburutegia zabalik.

AREATZA

Udagoién osoan zehar, onddoen garrantzia goraiatzeko hainbat aholku emongo dira Gorbeia Parke Naturaleko atsedenguneetan.

ARRATIA

Zemendiaren 19an hasiko dan *Autodefensa Feminista* tailerrerako izen-emotea www.arratia.net webgunean, Arratiako Udalen Mankomunitatean, 94 631 17 17 eta 688 627 303 telefonoetan edo udaletxeetan. Ikastaroa zemendiaren 19tik abenduaren 10era arte, barikuetan izango da Igorreko Kultur Etxean.

ARTEA

18:00etan, Kafrangak-ek antolatuta, wikisaioa Andran Gelan.

18:30ean, Aurrekontu Partehartzaileak 2022 Batzar informatiboa Kultur Etxean.

BEDIA

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik, astelehenetik barikura.

Enplegua bilatzen dabizenei lagunduko deutse Udal Liburutegiak kurrikuluma eroan ezkeru, ekintzak heldu ahala bideratzen.

DIMA

16:30etik 19:30era, astelehenetik eguenera liburutegia zabalik.

IGORRE

09:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:30era, astelehenetik barikura liburutegia zabalik. Goizetan ez dago mailegu zerbitzurik.

08:00etatik 22:00etara ikasgela zabalik. Aurretik Kultur Etxera deitu behar da zitea eskatzeko 94 673 62 51.

LEMOA

Oinezbusa, eskolara ikasleak oinez joateko dobako begirale zerbitzua hasiko da.

08:00etatik 21:00etara, astelehenetik domekara Kotxepineko ikasgela zabalik.

16:30etik 19:30era, liburutegia zabalik astelehenetik barikura Kotxepin Kultur Etxean.

Hilaren 21ean egingo dan Lemoatx Trailen izen emotea zabalik hilaren 15era arte rockthesport.com eta kronoak.eus webguneetan.

Lemoa Ureztatzen kanpaina. Deskontu bonuak herriko 24

komertzioetan bonuak amaitu arte.

Abenduaren 12ra arte, Egunean Behin tribial estiloko joko digitalean hartu daiteke parte. Lemoaztarrak batu ahal dira lehiaketara aplikazinoan 204F9E kodea sartuta.

ZEBERIO

17:00etatik 19:00etara, astelehenetik barikura liburutegia zabalik.

Azken nahiak berbaldirako izen-emotea zabalik hilaren 12ra arte udaletxean. Berbaldiaren eguna ez dago zehaztuta.

ZEMENDIAK 3
LEMOA

Oingabiz Lemoa jarduera fisikoa sustatzeko programea. 16:30etik 17:15era, eguaztenetan, DBHkoentzako kiroldegian, izena aurretik emon; 17:30etik 18:30era, edadekoentzako kiroldegian, izena aurretik emon.



Egaña eta Agirre egongo dira
Zeanuriko bertso afarian

Zemendiaren 6an, 21:00etan, jubiladuen tabernan izango da Zeanuriko bertso afaria. Aurten, Andoni Egaña eta Unai Agirrek kantauro dabez bertsoak urtero Udalak antolatuten dauan bertso afarian. Ize-na bezpera arte emon daiteke jubiladuen tabernan.

Andoni Egaña Makazaga (Zarautz, 1961) izango da seguruenik bertsolaririk ezagunena Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusia lautarra irabazi ebanetik; 1993an, 1997an, 2001ean eta 2005ean, hain zuzen be. Euskal filologoa, idazlea, telebistarako gidoiak be idazten ditu, baita literatura eta kazetaritza lan ugari be. Bertsolaritzari buruzko teorizazinoan aitzindarietako bat da eta euskaltzain urgazlea. Zeanuriko urtailleko bertso saioan, askotan egonda dago Egaña.

Unai Agirre Goia (Hernani, 1975) bertsolariak sagardogintzan be egiten dau behar. Bertsogintzeari jagokonean, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalera heldu zan 2017an. Bertso zaharrak berreskuratzeke lanak egin ditu, eta sarritan tradizino handiko doi-nuak erabilten ditu.

Zeanuriko Udalak bertso eskoleari lokala ixteaz gainera, urtero antolatuten dauz bertso afaria eta urtaillean Zeanuriko bertso saioa.

ZEMENDIAK 4
IGORRE

19:00etan, abenduaren 23ra arte eguenero, idatz tailerra Idoia Carramiñanaren eskutik Udal Liburutegian. Izena aldezt aurretik emon, 16:00etatik 20:00etara, 94 685 25 30 telefonoan.

LEMOA

19:00etan, Makatzak Arratiako Ekologistak taldeak antolatuta, Zero Zabor Bizkaia Joseerra Otegiren berbaldia *Zaborra Arratian*. Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

18:00etatik 20:00etara, Mazala Andra Taldeak Orratzak talde feministearen laguntzeagaz antolatuta, *Indarkeria sinbolikoa: patriarkatu kamuflatua* ikastaroa, Aitziber Aginagaldegaz. Gazte Txokoan. Izena aldezt aurretik emon mazalaandratalde@gmail.com helbidean edo WhatsApppez 652 526 159 zenbakian.

ZEMENDIAK 5
DIMA

19:00etan, frontoian. VII. Udagoieneko Txapelketea. Garaio Vs Urrekoatxa.

LEMOA

20:00etan, Korrontzi eta Xabier Amurizaren *Koplariak* kontzertua Kotxepin Kultur Etxean.

ZEANURI

19:30etik aurrera, magiapoteoa Tor eta Txoborro magoen eskutik.

ZEBERIO

18:30ean, aurrekontu parte-hartzaileetako eretxiak jasoko ditu EH Bilduk plazan.

ZEMENDIAK 6
LEMOA

08:30ean, perretxiko bilketea, Kotxepin

Kultur Etxetik urtenda. Bueltea bazkalordurako. Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta.

UBIDE

10:00etatik 14:00etara, Ubideko merkadua.

ZEANURI

18:00etan, *Aztikeriak* magia saioa plazan.

ZEMENDIAK 7
IGORRE

Gazte Asanbladen Urriko Martxea. 09:00etan, gosaria Arrigorriagan; 10:00etan, mendiibilaldia Arrigorriagatik Igorrera, bidean berbaldia *Arginatxeko koba eta meazuloak*; 14:30ean, bazkaria Kiñu Gaztetxean; bazkaloste girotua; 17:00etan, *Jazz In Hell* bikote komikoaren bakarrikzketea; 18:00etan, agur ekitaldia.

17:00etan, zinea *Bella y el circo mágico*; 19:30ean, *Cry macho* Lasarte Aretoan.

LEMOA

10:00etatik 14:00etara, perretxiko erakusketea Atxetako plazan. Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta.

ZEMENDIAK 8
LEMOA

Oingabiz Lemoa jarduera fisikoa sustatzeko programea. 09:30etik 11:00etara, astelehenetan ibilaldi gidatuak helduentzako Gudarien parkean; 11:00etatik 13:30era, orientazino zerbitzua Arraibin.

ZEMENDIAK 10
LEMOA

Oingabiz Lemoa jarduera fisikoa sustatzeko programea. 16:30etik 17:15era, eguaztenetan, DBHkoentzako kiroldegian, izena aurretik emon; 17:30etik 18:30era, edadekoentzako kiroldegian, izena aurretik emon.

UBIDE

19:00etatik 20:00etara, erlajazino ikastaroa hasiko da Sonia Miguelen eskutik. Aste birik behin eguaztenetan. Izena aldezt aurretik emon 629 260 402 telefonoan.

ZEMENDIAK 11
IGORRE

17:00etan, Bizi Igorrek antolatuta 55 urtetik gorakoentzat *Gure ongizateaz berbetan* hausnarketa saioa eta *Bizitzaren digitalizazino eta arrakala digitala: nola eragiten digu gure egunerokotasunean?* Kultur Etxean.

LEMOA

19:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Jokin Lizeagaren berbaldia *Gozamena ala sufrimentua* Kotxepin

Kultur Etxean.

ZEANURI

18:00etatik 20:00etara, *Indarkeria sinbolikoa: patriarkatu kamuflatua* ikastaroaren bigarren saioa, Aitziber Aginagaldegaz. Gazte Txokoan.

ZEMENDIAK 13
AREATZA

Parketxeak antolatuta, mendi ibilbidea: Kobazuloen eta Karstaren Nazinoarteko Urtea dala eta, Igiñiger espoloira hurbilduko dira parte-hartzaileak. Zailtasun ertaina. Izena 94 673 92 79 telefonoan edo gorbeia.parke.naturala@bizkaia.eus helbidean emon.

DIMA

18:30ean, Caritas Arratiak antolatuta, pobreziaren kontrako jaialdia frontoian. Bertsoak, musikea, antzerkia eta jantzak. Zozketak eta txokolatea.

IGORRE

17:30ean, Zurrunka Teatro konpainiaren *Aioko* umeentzako antzerkia Lasarte Aretoan.

ZEBERIO

21:00etan, Erruki jauna, Ugaoko hard-core punk taldea eta 22:30ean, Zero taldea. kontzertuak. Udagoién Kulturalea.

ZEMENDIAK 14
IGORRE

17:30ean, zinea *Dos colegas y la gran bestia*; 19:30ean, dokumentala Lasarte Aretoan.

ZEMENDIAK 15
LEMOA

Oingabiz Lemoa jarduera fisikoa sustatzeko programea. 09:30etik 11:00etara, astelehenetan ibilaldi gidatuak helduentzako Gudarien parkean; 11:00etatik 13:30era, orientazino zerbitzua Arraibin.

16:30etik 17:30era arte, egunero barikura arte bizikletan ibilten ikasteko ikastaroa Arlonagusia futbol zelaiko aparkalekuan. Izena emon www.lemoa.net webgunean; 18:30ean, Pickleball kirol modalidadearen erakustaldia kiroldegian, Kirlan Kirol lanak enpresearen eskutik.

ZEMENDIAK 16
LEMOA

17:00etatik 18:45era, ludotekatik frontoira. Izena emon www.lemoa.net webgunean.

18:00etan, *Futbola eta euskara* solasaldia eta entrenamentua Gaizka Garitano eta Ainhua Tirapugaz Arlonagusia futbol zelaian. Udaleko Euskera Sailak, Jai Batzordeak eta Lemoako Harrobi Futbol Klubak antolatuta.

Oraineko Herri Hozwuntza

Gure

ikastetxeak

Euskalduna
kalidadezkoa
herrikoia

JB Eguzkiza Meabe HI
Tel.: 94 631 32 28 Lemoa

Ugarana HI
Tel.: 94 631 55 32 Dima

Zubialde HI
Tel.: 94 648 06 82 Zeberio

Zeanuri HI
Tel.: 94 673 93 33 Zeanuri

Ikastola Arratia HI
Tel.: 94 673 90 65 Artea

Arratia BHI
Tel.: 94 428 79 34 Igorre

Areatzako Herri Eskola
Tel.: 94 673 90 93 Aratza

I. Zubizarreta HLHI
Tel.: 94 673 60 22 Igorre

Herri Hozwuntza

Lehen Hozwuntza

Dorrigorrezko Bigarren Hozwuntza

Datxilergoa

Hozwuntza Zinloa

2 urtean 13ra

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK MINTZAPRAKTIKA SAIOAK
 Mintzapraktika saioak euskeraz eta ingelesez bakarka zein taldeka (25 urtetik gorako lagunentzat). Telefonoa: 635 750 097.

SALTZEAN DOT
 Soinu ekipoa salgai: Berhinger Xenyx 2442 FX mahaia, bozgorailu bi autoanplifikauak Berhinger B300 eta hanka bi. Dana, 400 euroan saltzean dot. Deitu 657 707 725 telefonora.

SALTZEAN DOT
 Ezcaray-ko arasea salgai, egoera eta prezio sano onean. Altueria 2,10 metro, zabalera 2 metro eta sakonera 40 zentimetro. 615 708 238.

SALTZEAN DODAZ
 Fagor etxeko labadorea, Class A+A, LF-1106, 1.000 erreboluzino, 6 Kg. 50 euroan, eta Aspes etxeko hozkailua, Ideal modeloa, goikaldean izozkailua daukana eta behekaldean hozkailua, 100 euroan. Telefonoa: 616 634 306.

LANA INGELES IRAKASLE BILA
 Ingelesa dakian persona baten bila nabil,

batxillergoko lehenengo mailan dagoan ikasle bateri klaseak emateko. Interesdunek deitu 620 607 952 telefonora.

KLASEAK EMOTEN DODAZ
 Lehen Hezkuntzako ikasleentzat Matematika, Euskera eta Gaztelania klaseak emoten dira online eta aurrez aurre. Kontakturako telefonoa: 646 447 988.

KLASEAK EMOTEN DODAZ
 3. eta 4. DBH eta Batxilergoko ikasleentzako matematika, fisika, kimika, teknologia... klaseak eskaintzen dira Igorren; institutu ondoan. Informazio gehiagorako deitu edo WhatsApp-a bidali 608 381 984 zenbakira.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1
 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Cry macho* filma ikusteko.

Esti Garcia (Areatza)
 Irati Urien (Zeanuri)



2
 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera *Aioko* antzezlanerako.

Naia Rodriguez (Igorre)
 Xabier Atutxa (Igorre)



Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUk 19 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

umean
 media

Agirre Lehendakaria, 31 • 48140 IGORRE
 Tfnoa. 94 631 92 96 • seimmedia@hotmail.com

KIRRU
 ILEAPAINDEGIA

ROSANA eta ROBER
 SABINO ARANA 38
 IGORRE
 Tlf. 94 631 92 00

BIXER
 TABERNA

Boko kalea, 2 - Telf. 94 631 73 65 - VILLARDO

begitu

BIZARGINAK
 -Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu -Baxarra egin eta buikunduten dogu
 Tel. 94 607 78 33

Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

Jose Luis
 Corbacho

pintura lanak

Sabino Arana, 3. 3a
 Igorre 48140 Bizkaia

94-673-70-87
 609-79-40-54

ZEKUTZE
 JATEETXEA

Sabino Arana, 34
 48140 IGORRE - Bizkaia
zekutzejateetxea@hotmail.com

Tel.: 94 631 52 83

Dia %

PEDRO
AUTOZERBITZU

Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
 Tel. 94 631 15 26

Pinturas Aratia

Javi Morato

Tel. 628 443 992

ZUZENBIDE

ASEGURUAK:
 AUTOAK
 ETXEBIZITZAK

AHOLKULARITZA:
 LAN ZUZENBIDEA
 ZERGAK
 KONTABILITATEA

DENDAK
 ISTRIPUAK
 BIZITZA...

Tlf. 94 673 71 41 • 94 673 70 55 • 94 612 11 96 • Faxe 94 612 11 96
 Sabino Arana 3. behea • Igorre (Bizkaia)

begitu

 **Smurfit Kappa**
CENTRAL FORESTAL



Central Forestal (Smurfit Kappa), “la papelera”, ibilbide luzeko enpresa gara, eta basogintzan kaudimen handia dugu.

Koniferetako egur mota guztiak erosteko interesa dugu (apeak eta zerrarako zurgaiak), zutik zein botata, baita entresaka zein matarrasetan ere.

Egurra saltzekotan bazabiltza, zalantzarik gabe jar zaitez harremanetan Eukenerekin, **669 41 97 68 telefonoan, atsegin handiz bisitatuko zaitu eta gure eskaintzarik onena prestatuko dizu.**

eukene.oarbeascoa@smurfitkappa.es



www.smurfitkappa.com